

BERTSOLARI

GVDVAK

1935-1936



EVSKATZALEAK











H-59981  
F-60763

ATV  
27093

# BERTSOLARI-GUDUAK

1935 - 1936



DONOSTI'KO EUSKO GAZTEDIA

LAGUNTZALE

EUSKALTZALEAK

DONOSTIA - 1936

BERTSOLARI-GUDAK

1887-1896

MONOSTRUKO EUSKO GASTORIA

LAGUNTZALE



BUSKATZAILA  
GONGOTIA 1935

ADV  
27093

# BERTSOLARI-GUDUAK

1935-1936'gn

ILBETZEKO 20 ETA 19'an

OSPATUAK



GUDUKO BERTSOAK

EUSKO GAZTEDIKOAK YASOAK



ZUBIMENDI'TAR YOSEBA

IDAZLE



AITZOL'DAR Y'REN

ITZAUREA



ARGIRATZAILÈ

EUSKALTZALEAK





## BERTSOLARIA, NOR DEGU ?

Zer ote litzake Euskaleña  
bertsolaririk gabe ?

Gure eñiaren eñaiak antzutu ziralakoan geunden. Emankoña izan degu euskal-gogoa bai kanta eta dantzak, bai yoku eta bertsolariak sortarazteko. Nun izan ote da gure mendi tarte oietan baiño ugariago abesteko doairik? Nun bertso eta olerkiak asmatzeko almen bizkoñagorik?

Alako artan, ordea, Euskaleñiko sormen ori igartu zala zirudin. Erdel-kutsua nun nai; arotz gogoen nabarbenkeria itz, kanta eta bertso guzietan.

Diktadura -menpean geunden artean. Or genbiltzan «Euskaltzalekoak» nundik nora euskal-gogoa piztuaraziko. Inguruan eriotz-antsiak baizik ezbagenituen entzuten!

Aro negargañi ura, bikain asko, gure Yauregi olerkari miñak betirako yakin arazi du:

«Ilundu ziran Euskaleñiko mendiak beñiz,  
laiñotu egun nabaña.....

Negañez ta antsiz, lotsaz dardaraz beñiz yañi zan  
Gernikako zugaitz zaña.



Mendira igesi laisterka asi zan negar-zotinka  
Ama Euskera gaixua...  
Zapi zar-beltzez estali zuten Maitagañiak  
berez urézko burua.

—  
Gau luze batek zabaldu zuan estalki beltza  
Eusko erien gaiñera,  
ta, yaun da yabe, txistu t'oruka, Baso-yaun gaitza  
zebilen menditik bera ».

Ain maitagañi genituen amaika gauza betirako galduko  
ote zitzaizkigun dardaraz geunden.

Euskal-kutsuko gaietan gogokoenak kanta zañak eta  
bertsolariak zaizkigu. Aien ots eztitsua itzali eta oien  
sormena igartuko ziralakoan lañi giñan benetan.

Beste erí batzuk ere oréla ondatu baitute bere izakera  
berezia! Oroimenera zetorkigun Gabriel y Galán'en arako  
olerki atsekabe ura:

«Se acabaron para siempre los selváticos juglares  
que alegraban las majadas con historias y cantares  
y romances peregrinos de muchísimo sabor.

Para siempre se acabaron los ingenuos narradores  
de las trágicas leyendas, de fantásticos amores  
y contiendas fabulosas de los hombres del honor.

¡ Ya se han ido, ya se han ido !

¡ Ya no ritman, ya no cantan !

los pastores y vaqueros de mi abuelo el patriarca  
que con ellos tuvo un día la fortuna de morir ».



Erdel erietan gertatutakoa Euzkadin ere egi garatz biurtu zitekean. Bildur onek garamazkin nundik nora bertsolari zaáren aragi igartuan bizitz-guna txertatu genezaken asmatzera.

Asmo onek eraginda bertsolaria nor ote genduan ikastera makurtu giñan. Bertsolaria nor izan du ote zan eta eusko edesti zear aren izakera ezagutzera beartuak geunden, auferantzean ere iraunkor bizi araztekotan.

### Bertsolaria, nor naizen, alajaiña?

Iñork adierazi lezakean baiño obeto bertsolari berak beren buruaren beñi eman lezateke. Biotz bañuan nabaitzen duten indar eskutukoak daramazki-kanta araztera.

Bertsolariak bere baitan urduritsu, ezin egonik oartzenduan kanta-miña ezin genezake, guk beintzat, azaldu. Abestu bear auxe Buenos Aires'en bizi izandu zan ezpeletar Mendiaga koplakariak bikain asko irakatsi zigun:

«Kantuz sortu naiz eta kantuz naiz bizi,  
kantuz igortzen ditut nik penak igesi;  
kantuz izan dudanian zerbait irabazi  
kantuz gastura ditut guzia igesi:  
kantuz ni bezelakok iltzia merezi ».

Kantuz pasatu ditut gau eta egunak;  
kantuz izan dirade ardura ta lanak;  
kantuz ibiltzen nitun aldeko lagunak;



kantuz eman didate, obra gabe, famak;  
kantuz artuko al-nau Yainko-Yaunak.

Kantuz eman izan tut zenbaiten beñiak,  
kantuz gustatu izan zait eraitia egiak;  
kantuz egin baititut ainitz afruntuia  
kantuz eran ditzadan ene pekatuak,  
kantuz egiten ditut nik penitentziak.

Kantuz eginez gero munduian sortzia  
kantuz egin bear dut, ene ustez, iltzia;  
kantuz ematen badaut Yainkuak grazia,  
kantuz idekiko nau San Pierek atia,  
kantuz egin dezadan zeruan sartzia.

Kantuz egotz nezaten iltzen naizenian,  
kantuz ene lagunak arturik aidian,  
kantuz ariko dira ni lurian sartzian,  
kantuz pranko utziko diotet munduian;  
kantuz egin dezaten nitzaz oroitzian ».

Ara, seaskatik ilobiraiño bitarteko bertsolariaren bizi-  
tzera Mendiagak zořozkiro adierazi. Landareak ernemi-  
ñaren indařez lorezen diran bezelaxe, kanta miñak ber-  
tsolariaren eztařia uřatuaz apaldiak abestera beařazten  
ditu.

Seaskak, gurasoak, sorteriak, adiskideak, ogibide eta  
lanak, naigabe ta alaitasunak, yaiotz ta eriotzak, yolas ta



atsekabeak, oben eta Yaungoikoak barneko iturburuan ur garden ugariak sortarazi dizkiete bertsolariei.

Beren baitan nabaitzen dituzten kezka eta alaitasunen abeslari izan bada bertsolaria erikideen eta abeñiaren kantolari ere bazaigu. Euskaleriak ez du ezagutu bertsolaria aiñako edeslari eta izlaririk.

## Euzkadi'ko eleder, bertsolaria

Nekazari, artzai, itzai, mandazai, erotari eta ikazkiñen artean bakañik sortzen zaizkigu gaurko onetan bertsolariak. Buruz yantzitako gizon eta andere artean bertsolari gutxi aurkitu leizke orain.

Bestelakorik gertatzen zan antziñan. Begirapen aundiko yaun eta andereño xalo gazte taldeetan ere koplakari iaierik aurkitzea etzan gaitza.

Eztaiak edo iñetak zirala, bataio edo eriko yaiak zirala bertsoak kantatzeko etxeko yauna edo alaba apain askoa prest ikusi zeikean.

Etzan arlote eta yende xeearen egitekoa bakañik bertsoak asmatzea; goimailako gizartean ere aurkitu zitekean yolasketa gendun. Orduan izlari yakintsu edo sasikorik, gaurko erara, ezagutzen ezbaitzan.

Ao ederekoak, beste esaera zañez eledeñak, oraingo iztun yaioari esan oi dioten elokuentea, koplakariei deitzen zieten, ez beste iñortxori.



## Andereñoak gauiletako eledeñak

Euskaldunen oitura zaárenetako gau-ila zeritzaion gertaerari so egiogun. Ara, etxeko areto apaiñena oial beltzez estalia. Lau argizaiezko suntoi artean gorputz bat datza. Etxeko-yauna il omen da; berari etxe bañunbeko iiletak egitera dioaz.

Ustegabeen alaba bertsoetan asten zaigu bere aita zana-ren bizitz-beñiak emanaz. An ziran aitaren egintza onak maiteki kantuz goratzea; an antsika biotz minuaren naigabea agertzea.

Alos-toñe'ko nagusia il zalakoan aren alaba Usoak, umezurtz bere burua ezagutuaz, kantuari eman zion aita yaunaren korputz aúean yauregiko zorigaitzak bertsoetan neurtuaz:

«Etxe eder leio bage onetan  
ez naiz sartu zazpi urte auetan,  
eta zortzigañenean,  
neretzat zorigaitzean,  
aita Beltranen iltzean....»

Asiera egokia olerki onena, areagoa oraindik mami sakon-negartia. Usoa andereñoak XV'gañen mendean apaldi oiek taiutu zituan, bat batean, gaurko bertsolarien antzera.

Etzan andereñoetan bakaña Alos-toñeko alaba biotza samindurik bertsoetara eman zeikeana; Lasturko bestetxo bat ere bere aizparen eriotzean beste ainbeste egiña zan.



Lasturko Milia, auráegin beñian, il zan. Onen gauñan  
olermenak eragin ondoren aizpak zion:

«Zer ete da andra erdiaren zauria:  
sagar érea eta ardo goña;  
alabaia, kontrario da Milia  
azpian lur otza, gaiñean aña.»

Iluntxoak, agian, oraingorako XV'garéngo bertso oiek.  
Ez da añitzekoa. Aurégin beñiari, aldi artan, zauria sen-  
datzearen sagar éreak eta ardo goña, osagañitzat ematen  
zioten. Miliaren senañak, baiño, emazte erdibituari, gogo-  
koa etzulakoan nunbait, sendagai orde z lur otza eskeñi  
zion.

Senañaren okerkeri onek mindu zuan, Miliaren aizpa;  
onegatitxek beronek aurpegira itxuskeria azaldu zion arei.  
Peru Gartzia, senar izanaren afebak biziki erantzun zion,  
bat-batean, Miliaren aizpari gauñil gañatz artan:

«Ez dauko Peru Gartzia beañik  
ain gaitz andia apukaduagatik.  
Zeruetako mandatua izanik  
andrari ok ala kunpli yasorik.»

Alegia, etzala Milia senañaren zabarkeriz il, zeruaren  
aginduz baizik; oregatik arek biotzeko kezkarik izatea  
etzala bidezkoa.



Eusko erara egiten ziran gauil oietan bertsoz kantatzea legezkoa zalata nunnaitik bertsolariak agertzen ziran gorputz ziranen izenak goratzera.

## Gudaketetan bertsolariak

Ez uste izan, ordea, iletak ziranean bakañik bertsolaria azaltzen zanik. Baita beste edozein gertaeretan ere. Ez-taiak zirala-ta, etzan koplakariren bat paltako ezkontza yai oietan. Gaur, ere, *tobera* yotzaileak berekin daramate koplakaria ezkon beriei zorion bertsoak abesteko.

Eñiaren gertaera lañietan, ordea, bertsolarien sormena arotzen zan. Guda negagañian anaiak naasten ziralata, goñotoa madarikatzeko eta pakea irizteko bertsolarien eztañi eta olermenak prest zegozen.

Itzuli ditzagun begiak XIV'gañen mendeko bizitz goibeltsura. Guda odoltsuak zoratuak zarabilzkin aldi artako euskotañak, «*odol sendoa ostuaz*» batak besteari, antziñako abestiak dionez.

Aramaionako gudaketa zangañean gudamutil izandako bertsolariak dio nolako bilduñak eta naigabeak igarotzen zituzten naspil aietan:

«Oñetako lur au yabilt ikara  
gorputzeko lau aragiok bezela...»

Beste batek, beriz, Oñaztar eta Ganboar geratean Añasate uria su-gañetan ikusirik kantuari eman zion bañena



lasatze-añen. Aizken apaldian Andra Santa Mariñari eskeñak zuzentzen dizkio bere etxera osasuntsu itzul arazi zulako.

«Esker asko ematen deusat  
Andra Santa Mariñari;  
Beraxen elizat sartu eta  
etxera bidaldu nau ni.»

.....

Oneragotu gaitean Euzkadi'ko edesti zear. Karlatañen gudateari begira diogun pizkabatean. Karlista eta beltz alderdietan bereala nabarmendu zitzaizkigun koplakariak; batzuk Karlos éregeari iseka egiteko; besteak beltzengandik bereak eta besterenak esateko.

«Atso zaar, zaar batzuek  
panderua yoaz,  
gonak añastaka ta,  
ankak utzik, dioaz  
ezin sosegaturik:  
—Karlos etoñi data  
ikustera goaz....»

.... abesten zuten beltzak karlatañei ernegazteagatik. Baita egi borobilik Karlos éregearen *jeneralengatik* bertso zoñotzetan esanak ziran bertsolari beltzak:

«Bordarientzat txardin erdia;  
eurak oilozko osoak,  
epeñak eta usoak,  
edari jenerosoak  
ondo beterik basoak.»



Karlataren alderdiko koplakariak etziran ixilik egoteko yaioak. Oiek ere beltzengandik zer edo zer adierazi nai izango zuten pařagaři ustekotan. Geienezan gudamutil beltzak uri nagusitan egoten ziran alperkeri gořian karlatařekin buřuka egin nai ezik. Ongi asko zirikatzen zituzten koplakari xuriak:

«Aspaldian egin dek makiñabat jira,  
goiko aldetik beřiz karlistak begira....  
—Tropa alpeřik mantentzen, jai ori galketa!  
; Ator gu arapatzera Oiartzun mendira!»

Donostian kiskurtuta zeuden beltzei abesten zieten karlatar mutilak. Etziran, ordea, bertsolari guziak guda zaleak; batzuek pakezaletasunak eraginda anai arteko maitetasuna adierazten zuten, Eřenderiko Xenpelařek bezela:

«Ez naiz geřa zale  
baizik pakearen alde;  
zeiņek nai dauden galde  
tirari berari alde,  
bala bat sartu buruan  
aspertuko da orduan.»

Eřiak zer nai uraxe bertsolariak kantatzen zuten. Maite minduen antzera bertsolariak bereak ditu beti eřiaren naigabe eta alaitasunak. Euzkadin uztartuak gaurdaiņo ibili dira eřia eta koplakariak.

Ořegatitxek, asieratik diogu, eřiaren abotsa koplaka-  
XVI



riak dirala; oien eztañaren bidez bañuko antsiak eta pozak gure aberñiak adierazi dizkigula.

Ara zergatik, bertsolaria Euzkadiko eleder ez ezik, bere gogoaren erakusle zala genion.

## Bertsolari - guduak

Bertsolaria, geienez, ez da bakañik yarduteko yaioa. Inguruan adiskidea bear du, arerio antzean, guda bizian aritzeko. Orduan sormena arotu, adimena zoñoztu eta irudipena aberasten zaizkio.

Koplakarien arteko yardun oneri, antziñetik, *gudua* deitzen zaio. Etzaigu atsegin bertsolarien alkar yarduketari *batzaldi*, *yokualdi* eta kideko itzez ezagutzea, yatoñizko itz egokia dun ezkerok; izen egoki bakaña *bertsolari-gudua* bedi betirako.

Noiztik ospatzen ote diran Euzkadin bertsolari guduak? Gudu oien adiñik neurtu lezakenik ez dago. Zartzaro oñen ageririk ez bait-degu eskuartean.

Gure aitonak zabartxoak izan zitzaizkigun beren oiturren beñiak iraunkor adierazteko. Bertsolari gudu oiek gure abenda bezin zañak dirala aitortzea ez da okeñeko aitortza.

Guduen beñi yakin arazi ziguten Donostiko «Consistorio de los Juegos Florales» zeritzaion alkartasunak 1877' gañen urtean. Ordu ezkerotik bazkun erainkor onetxek urteoro Donostiko Teatro Zañean guduak antzi-



ñeko erara gertatzen zituan. Olerti yoku onetarako Santo Tomás eguna begiz yoa zuten.

Bidasoarunzko euskal luraldeetan D'Abbadie euskaltzale gartsuak, aro artantxe, ekinaldiak egiten zituan bertsolari guduari eustearen.

Gaurko mende au argitara zitzaigunean gudu oiek, aulkeriaz yota, eriotzera zetozen. Azken-aldi lañira españar Diktadurak zekarkin bertsolarien yoku eder auxe. Betirako igartuko ote zitzaigun euskal-landerea ?

## Gaurko Bertsolari Egunak

Koplakarien il bear onek lañi genkarzkin Euskaltzaletakoak. Alegiko erotan alkartu giñan «Lizardi» zana, Yauregi olerkaria, Labaien antzezlaria eta Erauzkin bertsolaria, gaitz ofentzako sendagairik aurkitzen ote genduan edo. Ango asmoak zerbaiteko izan ziran nunbait.

Donosti zañean aiton bizargile bati bertsolari guduak, antziñako erara taiutzen trebe zala igañi genion. «Consistorio de los Juegos Florales» zalako aietan epaile bezela ibilia bait-zan Uranga'tar Iñaki.

Alzaga'tar Toribi jaunaren omenez «Centro Católico» antzokian 1930'gañen urtean Euskaltzaleak lenengoz eratu zuen Bertsolari-gudua onetxek zuzendu zigun. Txirita, Lujanbio, Telaetxipi, Zabaleta, Agife eta Bitoria zanak, lege zañera gudu arigaria egin ziguten. Trebe asko eta zoñotz Uranga olerkari aitonduek bertsolariak zirikatu zituan. Txapeldun, ao batez, Bitoria aukeratu genduan.



Bidea uratu aŕen auferuntz yotzeko garaia etzan eldu artean. Olerti-Egunak, Euskal-Egunak, Antzerti - Egunak berekin zaramakiten lanik asko sortu eta iraunazteko.

Alako baten, ordea, Bertsolari-Egunari ere bere garaia iritxi zitzaion. Liburutxo onen asieran irakur zenezake. Euskaltzaleai, Donostiko Eusko Gaztedi gartsuak eskeiñitako laguntza anaikoŕaz, bertsolarien guduak orain beiñere baiño biziago eta kementsuago erabeŕitzea erabaki azi zion.

Oraindaiñokoan bi Bertsolari-Egun ospatuak ditugu. Oŕialditxo oietan Egun edeŕok aizetu ditzazuntzat idazki au argitara dakarkigu. Ez da lan eŕexik, diotenez; ez da ere nolanaiko bertsolarien apaldi guziak zintzo eta txukun yasotzea. Eusko gaztediko mutilak leiatsu eta biziki bertsolarien aboetik bertsoka - bertsoka apaldi guziak osotu dizkigute.

Langun eta adiskide mami degun Zubimendi'tar Yoseba'k liburua borobildu digu. Gudaketa beŕitze onetan bertsolarien ezten eta eragintzaile Zubimendi zaigu; beroni zegokion ba legez oŕialde oiek taiutzea. Txukun asko gertatu ondoren Euskaltzaleak irakurleengana dakarki.

AITZOL'DAR Y.





# I'GO BERTSOLARI EGUNA

1935'ngo Ilbeltzaren 20'an

POXPOLIÑ ANTZOKIAN

DONOSTIA





# I'GO BERTSOLARI EGUNA

## Nola sortu zan

«Aitzol» ospatsuak, gai oni buruz, bere atzeneko itzaldian onela zesan: «Bertsolariak izandu dira gure edestia gorde digutenak; gure eñiaren poz ta atsekabeak, abestuaz, eunkiz-eunki guregana iritxi-azi dituztenak, gure adimen argiko bertsolariak.»

Alaxen da. Ta yai onen eratzaillearen naia, beñiz ere, gerogo, orobat gertatzea. Baiñan aspaldi xamar ontan, eñiaren gogo-naiak utzirik, or zebiltzan bertsolariak utskeriko gaiak abesten, eñien pañegañi. Eñi-abeslari auek, bide zuzenera ekartzeko asmoz sortu zan yai au.

Ludi onetan, utskeri bitartez, gañantzi aundiko gauza asko sortu oi dira ta bertsolari egun au, ain aundiki ospatu ba-degu, utskeri oietako bati zor zaio.

Lendik ba-zuan «Euskaltzaleak» bazkunak egun ori eratzeko asmoa; baiña, gaur, gertaera onek eragozten ziola; biar, beste batek gañantzi geiago zeukala; uñengoan politika gaia nagusi, eta oñela, batean ta bestean gure bertsolari eguna atzera.



Baiña egun batez, Donostia'n Eusko Gaztedia'k daukan areto apaiñean, ustekabeko gertaera bat sortu zan. Bertsoen indaía argi ikusi zan une aretan eta, ordutik, bazkun onek ere bertsolarien alde zerbait egiteko asmo sendoa artu zuan. «Euskaltzalearen» asmoa lendik yakiñik, ona nola biak batasunez eratu zuten yai-aldi au.

Eguna autatzea etzan ain érez; baiña Donosti éria euskaldundu nairik, beren yaiari begira, yatoñizko euskel kutsu duan gauzik egiten etzala-ta, Done Sebasten egunean, danbor soiñu artean, egitea erabaki zan.

«Argia» asteroko yatoñak zionez, egundo ez omen da oñelako euskel yai mamikorik izan Donostian.

Baiña gure gaurko eginkizuna ez da egun onek sortu dituan zeresanak agertzea, eguna nola ospatu zan edestea baizik.

Gai oni elduko diogu, ba, al degun zeaztasunez.

## Poxpolin - aretoan

Goizeko amañak ziran eta Poxpolin aretora etengabeko yendetza ziyoan. Garai artan bildu bear zuten bertsolariak; baiñan yai onetako eratzailleak etzion ordurako beste iñori otsegin. Alaz ere gerorago lekurik izango etzan belduñez, goizik asko zetozen bertsozaleak. Amar terditan, bertsolari geienak epaikarien auñean zeuden, eta Poxpolin-antzokia beriz, ostez gaiñezka.



Antzez-lekua ederki antolatua zegon. Erdian, sei epaikarientzat maia.

Epaikari bakoitzak an zeuzkan saioetako bereziki irarítako oñiak. Oñi aietan, bertsolarien izen ta eñiak eta bertso bakoitzari eman lezaioken ainbestekoa agertzeko, alde batean ala zion:

### BERTSO BAKOITZARI PUNTUAK EMATEKO ERA

Oso txarari. . . . .	0
Txar-xamarari . . . . .	5
On-xamarari . . . . .	10
Onari. . . . .	15
Oso onari . . . . .	20

Epaikari bakoitzak, onela, eñez eman zezakean bere iritzia eta guziak batasunez, erabakia zuzen.

Mai onen bi albotan, bertsolariantzako besaulki bigun, dotoreak. «Euskaltzaleak» en izenean yai onetako lendarikari gendun Ariztimuño yaunak yañazi zituan. Gudu onetara beren izenak biali zituzten era berean yañi ere eta onela gerta ziran:

Ikusleen eskubiko aldetik, lenengo eñeskadan:

- Basañi - Zarautz.
- Zepai - Eñexil.
- Txiñita - Altza.
- Txapel - Azpeiti.
- Lujanbio - Altza.



Bigarren ereskanan:

Abarategi - Bizkaia.  
Telatxipi - Errenderi.  
Nekezabal - Zarautz.  
Sarazola - Antiguoa.  
Mintegi - Ordizia.  
Erauskin - Ordizia.

Entzuleen ezkerreko lenengo ereskanan:

Kortatxo - Itziar.

Aldaia, asteasuara eta Zailpuru oiartzuara etziran azaldu ta beren exerlekuak utzik gelditu ziran.

Alkain urnietara zetozen gerogo eta onen inguruan Lañalde ta Matxin lapurditarak.

Ezkerreko bigarren ereskanan:

Zabaleta, Kepa	—	Errenderi
Zabaleta, Yon	—	Errenderi
Sorozabal	—	Aiete
Etxeberria	—	Aiete
Uriarte	—	Bermeo

Era onetan yaria zeudelarik esan zitzairen beren eginbeara, baita azkeneko saiorako ezkontza egin ere. Zeini zer lankintza ezartzen zitzaion begiratu gabe, aurretik



idatzita zeuden eran, bakoitza bere aurukoakin yari zan eta onela eskuratu ziran:

Basañi . . .	Artzai	Abañategi .	Arotz
Kortatxo . .	Nekazari	Etxeberria .	Aizkolari
Zepai . . .	Nagusi	Telaetxipi .	Pelotari
Alkain . . .	Moñoi	Uriarte . .	Dantzari
Txiñita . . .	Ikazkin	Nekezabal .	Añantzale
Zabaleta K. .	Erotari	Sarasola .	Añai-saltzaile
Txapel . . .	Indiano	Mintegi . .	Arakin
Zabaleta J. .	Maister	Erauskin .	Baseñitar
Lujanbio . .	Itzai	Matxin . .	Ardo-saltzaile
Sorozabal .	Peñatzaile	Lañalde . .	Ardo-edale

Epai-maia onela eratu zan:

«Euskaltzaleak» bazkunaren izenean, Ariztimuño yauna. Eusko Gaztedia'ren izenean, idazki trakets onen egilea ta Olano, Alzaga, Lekuona ta Olaizola yaun argiak.

Bertsolariei atzeneko irakaspenak eman ondoren, an zabaldu zan antzezlekuko zapia. Egia esan, egundo Poxpolin aretoak etzuan ainbeste lagun bere bañuan ikusi. Eta alaz ere, oraindik, estuka ta bultzaka ateetan geiago ta geiago.

Baiña goazen indar-neurketaren beri ematera.

Ariztimuño yaunak, itz labor mamitsuetan, yai ura zer zan eta zer izatea nai zukean argi azaldu zuan. Bestela



luze yuango litzakela-ta txalorik egin gabe ixilik egoteko,  
aŕen ta aŕen entzuleei eska zien.

Gudaketa asi zanean, ainbeste eunka lagun arnasari  
eutsiz, beren poza ezin gorderik azaltzen ziran.

## Lenengo saioa

Antxiñako erara, epai-maiekoak bertsoan eman zion  
asiera. Aspaldietan Zapirain zanak, Txapilo izenordez  
ezagutzen zan donostiar erikoxeme yatoŕak erabiltzen  
zuan doiñu berakin.

Ona bertsoa:

Ara bertsolarien  
gudua eratu,  
onekin gure izkuntza  
nairikan goratu.  
Bakoitzak nai duena  
lezake kantatu;  
doiñun azke zerate  
gaia aukeratu;  
baiñan beti bertsoan  
zuek gogoratu  
euskaldun zeratela  
ta ongi mintzatu.

Onekin asi zan lenengo saioa. Bertsoak dionez, doiñu  
ta gaia aske zituztela. Eta Basaŕi'k bereala onela yaŕaitu  
zion:



Uso zuri bat inguratu zait  
goizean egun argitzez,  
alaitasuna artxek sortu dit,  
yaun maiteak, bere itzez;  
eta ni orain zuen aurrean  
nazute pozaren pozez.  
Lendabiziko, entzule onak:  
Agur danori biotzez!

Saio guzitako bertsoak emen azaltzea, amai gabeko  
lana genduke. Etziran gaiñera guziak artu eta bakoitzeko  
banaka batzuek besterik ez ditugu agertuko. Zepai zan  
bigarren eta ona onek orduan asmatutako bertsoa:

Mila urte ta bederatzi eun da  
Ogei ta mabosteko urtean  
olerkariak etorri gera  
guztizko borondatean,  
Funtzio eder bat zelebratzeko  
Donostia'ko partean,  
oitura onak galdu baiño len  
ea mogitu gaitean!

Txapel zegoan irugarren bertsolari eta onek gai oni  
buruz botatako biak or dijoazkizute:

Pena guziak aldein dirate,  
alai dadukat bařena,



zer kantzatzea asko det baiño  
au esan beat aúena :  
Ainbeste anai eta aúeba  
eldu gera alkaúena ;  
au da gauza bat euskaldunaren  
maitasunak dakaúena.

Begiak argi biotza zabal  
memoria daukat ilun,  
nere moduan besterik iñor  
ez det ikusten nik iñun.  
Guztiak ondo izan gaitezen  
eúegutzen det gau ta egun  
eusko anaiak eta aúebak  
alkar maitatu dezagun.

Saio onen beúri emateari uzteko, Basaúí'k botatako bi-  
gaúen bertsoa deritzaik egokien. Auxe dezute:

Bertsolariak eman diote  
Txeko eúiarri gorantza,  
«Mireio» batek edergalutan  
yosia zuan Provenza.  
Ene Yainkoa egin zaiguzu  
guri bear dan laguntza,  
al dan azkaúen sendatu zagun  
gaixo dan euskel izkuntza.



## Bigarren saioa

Oraingo onetan, doiñua epai-maiekoak bertso batean ematen zuana bearezkoa zuten. Doiñu au guzientzat ezaguna autatu zan ; eñiak aoz-ao abesten duana, Pedro Mari Otaño'k sortutako «Limosnatxo bat» deritzaion bertsoakin erabiltzen dana. Gaia ere epaileak esandakoa besterik etzeukaten erabiltzerik. Baldintza auetara etziran guziak bear bezela lotu. Tamalez, beartutako bidetik iges, asko ibili ziran. Baiña geiago luzatu gabe agertu dezagun maiekoak abestutako bertsoa. Berau da:

Bigarren bertso saioa orain  
zoazte gogoz astera,  
ni ari naizen doiñu berean  
bearturik yaraitzera.  
Nai ta nai ezik bear dezute  
guziak gai auxe bera :  
« Euskel izkuntza galtzen ari da  
ta galtzen ba'da euskera,  
Euskaleñiko seme guziak  
betiko galduak gera ».

Bereala Basari'k eman zion asiera. Saio onetako bere iru bertsoak yasoak dauzkagu ta, irakurleen atsegiñerako izango diran ustetan, emen agertzea erabaki degu. Iru auek dira beraz:



Itxas ertzetik entzuten dira  
ama euskeraren antsiak  
ta bai dirala ilun tristeak,  
ene! bai negargañiak.  
Nola kanpoan ala etxean  
nunai ba-dauzka etsaiak,  
au oldoztuta malko trinkotan  
betetzen zaizkit begiak;  
bera iltzen ba-da ez du askorik  
paltako Euskaleñiak!

Entzun zaidazu, gizonezko oñek  
entzun, emakumezkoa;  
ikur aundiak agertutzea  
ez da izango naikoa.  
Ara nolatan mintzatzen zaigun  
gure Yauregi zintzoa:  
«Euskaleña euskerik gabe  
bai dala eñi gaixoa,  
maasti ofitsu edeña baiña  
mats alerik gabekoa!»

Galtzen ba-degu gure mintzaira  
galdua dago guzia,  
esaidazute, anai añebok,  
ez al da lotsagaña?  
Irakasleak bezela daukat

nik ere aitortu naia,  
au esanikan yoan zitzaigun  
Arana Goiri aundia:  
« Il naiago det ikusi baiño  
Aberíaren amaia! »

Bigarén bertsolaria Zepai zegon eta onek gerogo Txirita  
zirikatuaz gaia galdu-azi bazuan ere, lenengo bertsoa au  
bota zuan:

Nere baéngo sentimentua  
nai nuke adierazi;  
yakinduria gurekin degu  
iñork ezin galerazi.  
Atzeítikan etoíi eta  
euskaldunaren nagusi,  
geren gauzakin aginpiderik  
guk ez al degu merezi?  
kanpotar danak bear luteke  
euskera ondo ikasi!

Txirita'k ere bertso ederik asko kantatu zuan antxe.  
Azkenean par-antzeko irteerakin entzule askoren atse-  
giñen. Ona saio onetako bere bat:

Larogei urte gaiñean ditut,  
nago anketako miñez,  
Donosti'ra etoía naiz  
eíen aundia egiñez.



Bi bastoirekin txit lafi nabil  
pausorik eman eziñez.  
Euskera ia aztu zait eta  
erderarikan yakin ez,  
maixu batekin eskolan laxter  
asi bear det latiñez.

Bertso onek algara edeñak egin-azi zituan. Izan ere  
bukaeran buru-eskuakin Ariztimuño apaiza erakutsiaz,  
maixutzat bera aukeratua zeukala adierazten zuan.

Begi aurrean dauzkagu Txapel'en saio onetako beste bi  
bertso. Guzienak eziñean bioaz auexek:

Nere denboran ez det izandu  
orain ainbeste deskantsu,  
gure aberi maitagaña  
daukagulako indartsu.  
Gure gustoa zer litzakean  
guk bezin ondo dakizu,  
zure beñiak abestutzeko  
desiaturik naukazu,  
oñetarako laguntasuna,  
ama Euskadi ekatzu!

Nere biotza arkitutzen da  
alaitasunez betia  
ikusirikan emen guziak



daukagun borondatia.  
Oregatikan pentsatu det nik  
alabantzak ematia  
itzalditxo bat egin gabe gaur  
ez da komeni yoatia;  
beti goratzen saia gaitezen  
gure euskera maitia.

Bigarren ekiñaldi onen berri ematea bukatu behean gera  
eta Kortatxo'n bertso onekin egingo degu:

Zorionean juntatu gera  
anai danak alkaena,  
biar bezela ez gaudelako  
tristuraz daukat baena.  
Gu modu ontan bizi gera ta  
gauza bat dago txarena,  
anaitasuna ipiñi bear  
guk orain emen lenena,  
eta euskaldunak ondo izateko  
euskera bear aúena!

Saio au amaitu zanean, txalotsa izugarí bat entzun zan  
aretoan. Ordurako entzuleak, antzezlekuko bazter guziak  
artuak zeuzkaten. Abeetatik mats-alearen iduri, buruak  
zintzilik. Ezin adierazi dezakegu ostea nola estutu zan.

Urango saiorako zalantza gogoía zegoen. Nola izango  
zan ez baitzekien iñork. Eta atsedeneko asti labur baten  
ondoren asi zan.



Aldi onetan, maiekoak bertsoen asiera bertsolari bakoitzari ematen zion. Doiñu artan yañaituaz, itz-erorkera edo rima berdiñekoa arki bear zuan bertsolariak. Eta guzia une berean, oldozteko astirik gabe, zer esango zitzaionen aztañenik etzuala. Korapiño auek guziak ederki askatu zituzten gure gizonak. Batzuek «poto» egiteko lañi xamar ibili ziran; baiña etzan iñortxo ere nabarmendu. Entzutekoa zan aien trebetasuna! Ikustekoa zan aien urduritasun ta odolbizia! Buru belañi maiekoen asierari zoñotz eldurik, zakur gosetiak ogi puska aidean artzen duan irudi edo, zaldi laixterkariaren asierako ezin-egonen antzo.

Saio oni buruz asko esan genezake; baiño gure itzak baiño ango bertso zoñotzak irakurtzea gogokoago izango zaizutela-ta, berak agertu bearko ditugu.

Beste saioetan bezela, oni ere, maiekoak eman zion asiera. Ara zer bertsokin:

Asi dezagun beñiz  
bertsotan saioa,  
nik oiñak emanikan  
oryañaitzekoa.  
Auxen bai guk degula  
indarneurtzekoa;  
entzun, ba, nere itzak  
astera nioa.





I'ngo Bertsolari Eguneko epai-maia eta bertsolariak.  
Poxpolin Antzokian  
1935



1'ngo BERTSOLARI-EGUNERIA AGERTUTAKOAK



GOIAN: 1. «Basari»—Zarautz. 2. «Zepai»—Erexil. 3. «Txirila»—Altza. 4. «Txapel»—Azpeiti. 5. Lujanbio—Altza. 6. Erauskin—Ordizia. 7. Mintegi—Ordizia. 8. Sarasola—Donostia. 9. «Nekezabal»—Zarautz. 10. «Telatxipi»—Ereñderi. 11. Abarategi—Bizkaia. BEIAN: 1. Alkain—Urnieta. 2. «Kortatxo»—Itziar. 3. Zabaleta, Kepa—Ereñderi. 4. Zabaleta, Yon—Ereñderi. 5. Sorozabal—Aiete—Donostia. 6. Etxeberria—Aiete—Donostia. 7. Uriarte—Bermeo



Eta guziei banan-banan asierak eman zizkion. Berauek eta yaíaitzeak emen agertzeko asmoa artu degu; baiñan ez guziak, batzuek baizik. Emen dioaz aúrean egokitu zaizkigunak:

## BASAÍ

Lenengoa zu zera bertsoa botatzen....

.....

Orekin poz audirik etzait neri etortzen.

Asi bear bet orain zerbait éregutzen, oíela saiaturik alkar ezugutzen.

## ZEPAI

Bigaírena zu zera bota erantzuna....

.....

Orla agurtuko det nere ezaguna.

Asko estimatzen det orlako laguna propio ortarako da gaurko eguna.

## TXIÍITA

Yaíaiozu zeorék oíen esanari....

.....

Eíespuesta emango iot orain gizonari.

Apenas dagon bertan eskas eta laí; ez da ala moduan yolasean ari.

## TXAPEL

Nai dezuan gaiakin yaíaitu zaiozu....

.....

Nere erantzunakin aítu beazu.

Nola alkar mintzatzen ai geran ni ta zu, urte askoan orla zuk segitu zazu.



## TEĻAETXIPI

Zer diozu gai ontan  
esan zazu azkar....

.....  
Euskara galtzeakin  
gaitz aundia dakar.  
Saia gaitean danok  
gogoz eta azkar,  
ikasten saia ondo  
naiz gazte ta naiz zar.

## SARASOLA

Zeiñentzat izango da  
gaurkoan saria...?

.....  
Irabazten duanak  
zeruan gloria.  
Zuri erantzun eta  
ara esan egia ;  
oraindik ez da galdu  
nere memoria.

## ERAUSKIN

Orain azaldu zazu  
zedoñen gogoa....

.....  
la yañita nago

tonto ta eroa.  
Nik ez dakit zu zeran  
emen toreroa ;  
toriatzaiñetzako  
au dek yeneroa !

## ALKAIN

Noiztikan asi zera  
bertsoak kantatzen...?

.....  
Nere antzeko lagunakin  
nintzanen juntatzen,  
beti kantatuz nitzan  
euskaraz mintzaten.  
Eta emen oraintxe  
asi naiz aspertzen.

## MATXIN

Nolatan artu dezu  
oñen erantzuna...?

.....  
Laxter esango dizut  
ori ere gizona.  
Gose ta egañia  
ez da gauza ona.  
Nun dezu bazkaria  
prestatu dezuna?



## ZABALETA K.

Urte osoan zertan  
enpliatzen zera...?  
.....

Yan eta edanean  
konpontzen ba'gera.  
Gaur ere o'etara  
eto'riak gera,  
ia bazkaldutzeko  
ba'degun aukera.

## ETXEBERÍA

Erantzun akiozu  
nere izenean....  
.....

Nik kantatuko dizut  
zuk nai dezunean.  
Bastante aspertuak  
gaude gu lanean,  
pozik asi giñezke  
orain edanean.

## URIARTE

Ekin zazu oraintxe  
nere lagun zaía....  
.....

O'etako bai dala

orain urdu txaría.  
Ba-dakizu aragiz  
naizela malkaría,  
kanturako amaitu  
da nere indaría.

## ZEPAI

Bertsolarien egun  
zoragarí ontan....  
.....

Gizonak ez du bear  
beti be'riketan;  
baraurikan gaude ta  
ezta'ri neketan,  
danak konporme gera  
zu'uteko o'etan.

## TXIRITA

Ez dezazute esan  
be'itsuk gerala....  
.....

E'espuesta emango  
diot bereala.  
Galanki zapaltzen det  
anketako sala;  
baiño yasotzen gaitu  
nola-edo-ala.



## TXAPEL

Ez nuan nik beñere  
orlakorik uste...

.....

Entzunlari maiteak  
fjatu zaitezte.

Goizetik arkitzen naiz  
gaur ni oso triste,  
bazkaltzera yuatea  
obe degu laiste.

## NEKEZABAL

Bertsoak botatzeko  
au da yende pila....

.....

Danak pozik uztetan  
bear oso abila.

Oraindik solteru naiz,  
gaiñera mutila  
luák tapatutzeko  
a zer ezur pila.

## KORTATXO

Ementxe naukazute  
zutik eta tente....

.....

Ni're yarko nitzake

orain de repente.  
Siletan yaírikan  
órenbeste jente,  
zu zutik egotetan  
aukera zaituzte.

## SOROZABAL

Gauza bi esatera  
zuengana nator....

.....

Baldin ba-deizkiozu  
zuzen ala yator.

Ez dakit zer modutan  
ari zeran zu or,  
nere eztaña dago,  
yauna, pranko legor.

## TXIRITA

Zer dala-ta zabilta  
bertsoen lanetan...?

.....

Zartu xamar naiz eta  
bizi naiz penetan.

Egiak aitortutzen  
dizkitzut benetan:

ez dago arunka aundirik  
alderdi onetan.



## SARASOLA

Au da lanbide zaila  
gaurko au nerea....

.....  
Ondo neurtu lezake  
bakoitzak berea.  
Eskuturikan dago  
neretzat legea,  
sasoirikan onena  
joana da nerea.

## KORTATXO

Oñelako yai-aldi  
eusko-usaidunak....

.....  
Naio nituke beti  
orlako egunak.  
Neu bekelaxe emen  
danak euskaldunak  
ta pozez euskerari  
serbitzen diogunak.

## ALKAIN

Miñikan eman gabe  
nik nai nuke esan....

.....  
Begira daukagunak

sinistatu dezan,  
udaran ta neguan  
alde guzietan  
toriadore txafá  
etzerade izan.

## MATXIN

Au da buru austeko  
lana daukatena....

.....  
Oñek ematen digu  
biotzean pena.  
Zu buru austetan da  
egañiak dena,  
nik nai nuke orain yoan  
zurekin bañena.

## LAÑALDE

Emen azalduko det  
al detan guzia....

.....  
Nik ere egin nai nuke  
egiñal luzia.  
Gure izkuntza oni  
ongi laguntzia,  
aski da Yinkoari  
laguntza eskatzia.



Irugañen ekiñaldi au amaitu zanean, entzuleen poz ta zaletasuna agertze gaiko txalo soiñua entzun zan. Ordua auñera zioalarik, entzule askok beren etxetara yoan bear ta irteteko asti motx bat eman zitzaioten. Alaz ere, bazkaria gerorako utzita amaika lagun gelditu ziran azken saioa entzuteko asmotan. Orduan asi zan.

## Laugañen saioa

Ekiñaldi onetan bertsolariak binaka agertzen zitzaizkigun. Eriak geien ikusi dituan eran eta, batzuen iritziz, beren trebetasuna argien erakusten dutena. Asieran agertu degu bakoitzari ezañi zitzaion langintza; nor-norekin ezkon-azi zituzten ere bai. Alkar eztabaida edo yolasa zioan ba, saio onetan eta maiekoak asiera emateañen bertso au entzun-arazi zuan:

Bertsoetako saioa orain  
emendik degu beñitzen,  
bakoitzak lendik ezañitako  
langintzak gogoz goratzen.  
Bertsolariak binaka dira  
eztabaidetan azaltzen  
eta asieran esan bear du  
zer langintzan dan mintzatzen,  
gero, leiatuz, yañaitutzeko  
bata bestea menpetzen.



Bostna bertso abestu bear zituzten bikoitz bakoitzak. Eta saio onetan bere goi-argi, trebetasun ta zirikada zorotzak ederki agertu zituzten. Erakusbiderako ona Zepai'k nagusi bezela eta Alkain'ek mo'oi langintzan egindako bertso bana:

### ZEPAI=NAGUSI

Lenago gazte xama'ra ziñan  
pixkat ein dezu zartzera  
eta aditu izan detanez  
gizon motela etzera.  
Nik zuri lana agindu eta  
etzazu egin atzera,  
nagusi ona izango naiz ni  
ondo portatzen ba'zera;  
lenguan baiño goizago eto'ri  
urena gure etxera.

### ALKAIN=MO'OI

Zure bostortzai etzaio yuten  
aspaldi ontan erdoirik,  
debalde ere eznuke artuko  
asko moduzko pioirik.  
Zer yanen paltan naukazu eta  
zutik or nabil doi-doirik,  
ta sukaldean ez da azaltzen



len antzekoen urdairik;  
zuk ez daukazu bilaturikan  
ni bezelako mo'oirik.

Basari'k eta Kortatxo'k alkar zirikatzeke egin zituztenetan, ementxe dauzkagu mai gaiñean eta auekin amaitu nai genduke bertso agertzea. Basari artzai gendun eta Kortatxo nekazari; ez ditugu berak egindako bertso guziak agertuko; baiña ara emen batzuak:

#### BASARI=ARTZAI

Neureak orain aitor nai ditut,  
besteri zertan galdetu,  
urte polita izan degu-ta  
ez gera gaizki moldatu.  
Artzai lanakin ondo nabil ni  
ezin nezake ukatu;  
mendi maldetan noiz-nai txistutan,  
noiz-nai bertsoak kantatu.  
Mundu onetan zein ote dago  
orain ni bezin kontentu.

#### KORTATXO=NEKAZARI

Yoan dan urtea urte ona zan,  
arto gariak galanki  
eta etsaien inbiriarik  
nik ezin neike eduki.



Txistu egiñez, egoaldi onez,  
artzaia ere ederki;  
alpeñen martxa dago ortikan,  
ori edozeiñek daki;  
negu txarëan mantendutzeko  
saia beazu gogorki.

### BASAÑI=ARTZAI

Ai, Kortatxori erantzuteko  
ez det nik oso berandu,  
lendikan zintzo yota naiz eta  
damurik ez det izandu.  
Alpeñen martxa ote daukadan  
orëk alaxe esan du;  
inbrietan bizi zerala  
gauzak ongi ezagun du,  
zeuk ere zerbait eingo zenduke  
komentzirik ba'zendu.

### KORTATXO=NEKAZARI

Astelenean izaten det nik,  
nere bizi koxkoñean,  
iñola ezin ibili ta ni  
oso pauso azkañean.  
Tabernetara yoaten gera ta,  
gero ilunabañean,  
geren etxera etorí're bai



egundoko moskoñean;  
orduan aitak ipintzen digu  
atxurtxo bat bizkañean.

### BASAÑI=ARTZAI

Aguro asko esan dituzu  
nola bat eta bestia  
tabernarako nola daukazun  
zeure yokera guztia;  
aizu, len asko egitekotan  
oso seiñale tristia,  
gaitz izango da atxuñarekin  
zu lanean ikustia;  
kolore oiek egiterako  
etzaude gutxi kostia.

### KORTATXO=NEKAZARI

Bizibide bat oraintxen goaz  
geran etxean artzera,  
nekazariak izanikan gu  
gauz onik gutxi etxera.  
Larunbatean tabernara ta  
astelenean gerera,  
nere moduan kanpo aldetik  
ibiltzen baldin ba'zera  
zure aitakin asarētuta  
saritan gertako zera.



Ordubiak yoak ziran azken-saio au amaitu zanerako. Iru ordu osoetan egondu ziran ainbeste ta ainbeste lagun, lenengo bertsolari eguneko gora-bera guziak ikusirik, ango trebetasun buru-argiakin arituta.

Ostea Poxpolin aretorik irteterakoan, pozik zegon eta ala adierazten zuan ezpairik gabe.

Guzia amaitu zanean, epaikariak bertan bildu ta asi zuten azterketarako lana. Bakoitzak bere iritzia eman ondoren, azkenik erabaki au agertu zuten:

## Epai-Maiaren Iritzia

Epa-maiekoak beren iritzia agertzeko, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarien sorpena, irudipena, bertso-tarako éreztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oiñen berdintasuna.

Baita ere emankako gaiak erabili zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez.

Gauzak zeatz aztertu ondoren diogu:

1'go. Ao batez, iritzi berdiñekoak izanik epai-maiekoak txapeldun «Basañi» bertsolaria aukeratzen degula.

2'gn. Bigaeren sarirako «Matxin»; irugaenerako «Zepai»; laugaenerako Alkain aukeratu ditugula. Oietxek puntuz-puntu leku oiek irabazi dituztela, beste batzuek ia berdintsuak badituzte ere.

3'gn. Beste batzuek ere aukeratuak izango zirala, sari



ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yaierik ba-zan gudu onetan-ta.

Epai-maiekoak: Ariztimuño'tar Yoseba (apaiza), Al-tzaga'tar Toribi, Olaizola'tar Yoseba, Lekuona'tar Imanol (apaiza), Zubimendi'tar Yoseba, Olano'tar Txomin.

## Eusko Gaztedia'n

Berandu zan bazkaria asterako. Iru ordu abesten yardun eta bertsolariak ainbeste aldiz beren zirikadakin yan-edanak eskatuařen, orduan ez bazitzaioten eman, Do-nosti'ko Eusko Gaztedia'ren areto apaiñean ez zitzaioten ezer ukatu. Ba-zeukaten an eztaña zerekin busti. Era-tzaileak guziei poz eman nairik, bazkari txarteletan au irañi-azi zuten:

Done Sebasten egunean 1935.

### BERTSOLARI-BAZKARIA

« Euskaltzaleak » eta Eusko Gaztediak eratua

*Asteko txorakeriak*

*Eusko Gaztedi aroza zilipurdika*

*Bertsolari erako legatza*

« Euskaltzaleak » arkume eria, patata prejituakin

*Euskadi'ko goxo ta prutxa*

*Ardorik onenak - Sagardorik bikaiñenak*

*Kafia, esteak eretzekoa ta naiko kia ateratzekoa*

*Ondoren : bota bertsuak !!*



Amaika par egin-azi zuan alako euskera mordoiloak eta atzeneko deiari bai bertsolariak azkar erantzun ere. Bazan antxe bertsoa ta alaitasuna!

Bazkalondoan, Ariztimuño yaunak, itzaldi eder baten ondoren, epai maieko iritzia agertu zuan eta an aitatutako bertsolariari sariak onela banatu zizkaten: Basafi'ri 100 pezta; Matxin'i 75; Zepai'ri 50 eta Alkain'i 25.

Bertsolari bakoitzak eskañak bertso ederetan eman zituzten eta berak txalo ederak yasoak ziran.

Ondoren «Euskaltzaleak» bazkuneko lendakari dan Nonzon aldun gazteak, itzaldi sakon mamitsu bat egin zuan eta egun onen eratzailleei eskañak emanaz amaitu zan sari-banatzea.

Ez ordea bertso ekiñaldia. Goian Eusko Etxea'k daukan aretoan entzuki batzuen bitartez ederki entzuten zan bekoa ta goian ta bean, ostez beterik, bertsoa bazter guzitan.

Onela ospatu zan Donostia'n Lenengo Bertsolari Eguna ta itxuraz urangoak gañantzi aundiagoakian ospatzeko zaletasuna gelditu da.

## Ondorenak

Usurbil'ko «Gabon» bazkunak, Udañegi bertsolari zanaren izenean, txapeldun irteten zan bertsolariari sari bat eskeiñi zion. Eskeintz ori bertsolaria bizi zan erian egitea eratu zan ta, orela, Zarautz'en urango igandean au zala-ta yai-aldi egoki bat gertatu zuten.



Goizeko amaiketan, «Lizardi» gure olerkari irakasle izena eman dioten antzoki ederean, bertsolari ekiñaldi bat egin zan. Basaí, Nekezabal, Zepai ta Alkain'ek ongi atsegindu zuten ango ostea.

Asieran Ariztimuño yaunak, Euskadi'ko bertsolarien edestia agertuaz oraingoan yo-bidea argi agertu zigun. Guzientzat izan zan naiko txalo.

Bazkaltzen adiskide piño edera batu giñan eta amaieran, beíro «Euskaltzaleak» bazkuneko izenean itzegiñaz, «Aitzol» argiak Udaíegi saria eskeiñi zion Basaí'ri. Bai onek bertso ederetan eskaíak eman ere.

Zinkunegi yaunak, andik eta emendik zorionak emanaz etoítako urutidazki ugariak irakuí zítuan.

An zegon «Orixe» ere eta txaloak beartuta, eskuarte dabilkien olerkien beí eman zigun.

Ezin aztu Baíena yaunak irakuí zigun idazkia. Berau Enbeita'rena gendun eta Basaí bere zuaitzeko kima beía bezela agertzen zuan.

Egun edera Zarautz'en igarotakoa. Bertako semeak beren olerkaria goraldú nairik eratu zuten yaia guzien atsegiñeko izan zan.

Onekin amaitzen degu, irakurle, gai oni buruz egin ziran yaíen beí ematea. Beíz ere urtebete baíu orlako edo aundigoko yaia ospatzeko era izango al degu.



**II' GAREN BERTSOLARI EGUNA**

**1936'ngo Iibeltzaren 19'an**

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN**

**DONOSTIA**








I'ngo BERTSOLARI-EGUNEKO GUDUAN TXAPELDUN  
AUKERATUAK



I'ngo saria: «Basari»—Zarautz




III'gn. saria: «Zepai»—Erexil



«Basari», lenengo saria; «Matxin», bigařena, eta «Alkain», laugařena





11'garren Bertsolari Eguneko epai-maia eta bertsolariak, Victoria Eugenia antzokian. 1936



## II' GAREN BERTSOLARI EGUNA

Igazko bertsolari guduen oiartzuna ziara amaitu baiño len, ona beñiz «Euskaltzaleak» eta Donosti'ko Eusko Gaztedia, bigarena gertatzeko lanean. Ezin aztu zuan «Poxpolin Antzokia'an» garai artan bildu zan ozteak, bertan igarotako aldi zoragañi ura; beñiz ere poz-pozik arkitzen zan onelako yai batera biltzeko.

Eratzaliñen ustez, ordun ogei bertsolari batu ba'ziran, aurtengo onetan ugariagoak, noski. Yaialdia luzeegi gertatuko, orde, ta nolabait ere laburtu nairik, eta bide batez, bertsolari guziak neurtzeko era izan zezaten, asmo beñiak zebilzkien. Baita egin ere; Euskadi'n egundo egin izandu dan neurketarik gañantzienekoa, guzien esanean.

Gipuzko aldea bi zatitan erdibituta, Tolosa'n egin zan inguruko bertsolarien aukeratzea; Azpeiti'n urengoa.

Napar anaiak eta Auñamendi arutzko koplakariak ere an zuten beren agert-eñia: Elizondo.

Tamala, bizkaitaak beretakoak ez bidaltzea. Eratzaleak alegiñak egiñañen etzitzaigun iñortxo ere agertu. Urngoan ez al da ofelakorik gertatuko!

Ogei ta amar bertsolaritik gora agertu zitzaizkigun



neurketa auetara ta guzien artean onenak aukeraturik, egin zan Donosti'an azken-batzaía.

Egun onetan abestu ziran bertso guziak yasoak ditugu ta oíi auetan dioaz. Gure itz traketzak baiñan obeki, berak emango dizute yaialdien edertasun neuíi.

Bertsolari edestian yasota betiko gelditu dedin, labur, baiña zuzen neurketa guzien beíi emango dizkitzutegu oíialde auetan. Itzauré labur onekin, goazen Tolosa'ra.

## Tolosa'n

Igazko azken igandea gendun. Tolosa'ko abertzaleak bere «Abeíi Etxea» gaiñean duten pelota-leku politean yendea urdiri. Arátsaldeko ordubiak inguru, bertsolariak azaldu zitzaizkigun. Bakoitza bere yarlekutan exerita ona zeintzu ta nungoak ziran :

«Ondartza», asteasuaía.

«Pantxo», asteasuaía.

Txapartegi, asteasuaía.

Etxebeía, andoaindaía.

«Moxo», irurataía.

Ezeiza, ibaíataía.

Ugartemendia, amasaía.

Lujambio, eíenderiaía.

«Txiríta», altzataía.

Bederatzi bertsolari; batzuk zar ezagunak, gazte asi-



beñiak besteak. An bildu zan yendetza izugafia pozik arkitzen zan, onelako gudaldia ikusteko irikiturik.

Lau saio mota egin ziran. Lenengoan azke ziran bertsolariak, bai neuriz puntuz eta zer-esanetan. Lenengo maila onetan agertu zitzaigun bertsolari beñi on bat, Andoain' goa bera: Etxeberia gaztea.

Bigarren saiorako gai au eman zitzaien:

« Egoari yaiak ospatuzeko  
kantik onenak aukera  
ta Olentzero ta Gabon-gabaz  
izaten dan oituera.»

Gaia utzita zenbat ibili ote ziran berak nai zituzten lekuetan. Mutilak zirikalari agertu zitzaizkigun eta Lujambio'k aitatutako bakaño-kapoiak, geienak erabili zituzten kantetan.

Irugarren bertso saioari, epaileak, yuezak eman zion asiera. Izandu ziran gauz politik! «Moxo» zoñotz, biuri ta paregile; «Txirita» ta Lujambio saio onetan nagusi. Batek poto ta guzi egin zigun; baiño yendeak naiko lan ba-zuan tzaloei eutsi eziñik.

Laugarren saioan binaka yari ziran, bakoitzari ezaritako langintza edo ofizioa goraltzen. Ona nola zeuden:

« Ondartza », artzai.	« Pantxo », nekazari.
Txapartegi, nagusi.	Etxeberia, moñoi.
« Moxo », ikazkin.	Ezeiza, erotari.



Azkenekorako iru gelditzen zirala-ta, onela yaí ziran: Ugartemendia, indiano; Lujanbio, maixter; «Txirita», itzai. Saio onetan ere esan zizkioten alkaí beriak eta bost. Batzuek galduta ere ibiliak ba-ziran; baiño entzulien gogoko beti.

Tolosa'ko batzaía amaitu zanean, entzule guziak pozik irten ziran, an igarotako ordu atsegiñak goralduez.

Epai-leak alkar adituaz, erabaki au artu zuten:

«Epai-maiekoak zuzen eta zeatz bertsolarien ekitaldiak aztertu ondoren, gure iritxi au agertzen degu:

Lenlabiziko sarirako «Txirita» 75 laurleko.

Bigaíen eta irugaíen sariak baztertuaz, bigaíen mailakoak berdiñean irizten dituzte Lujanbio ta Etxebería'k 40'na laurleko bakoitzari emanaz.

Laugaíen saria Ezeiza'k, 15 laurleko».

Epai-maiekoak izenpetuta, oíi batean azaldu zuten erabaki au.

Lenbiziko batzar onetan bertsolariak argiro azaldu zuten beren trebetasuna ta entzuleak beren poza. Ilunabaíean amaitu zan, aztu eziñeko yaialdi au.

### Urteberí egunez, Azpeiti'n

Goieíaía bertsozale dala, lendikan ere ba-genekigun; baiña egun onetan Azpeiti'n ikusi genduan ikusi arte, ez genduan uste oíelako zaletasunik iñon izan zeikienik ere. Ederki adierazten zuan egi au, bertan bildu ziran entzule sailak eta batez ere bertaratu ziran bertsolariak.



Amaika bertsolari bildu ziran egoardiko amabi ta erdian « EtxeZuri » yatatxe izentsuan.

Bazkal ostean esan zitzairen bertsolariei nolatan yokatu bear zuten eta batez ere, asaririk gabe, anaitasunean, bertso lanetan nola ibili.

Aratsaldean, azoka enparantza zabalean, asi zan bertso gudaketa.

Ona zeintzu azaldu ziran:

« Kortatxo », Itziar.

« Uztapide », Zestua.

« Nekezabal », Zarautz.

« Txapel », Azpeitia.

« Akotegi », Azpeitia.

« Muño », Bidania.

« Zepai », Erezil.

Uranga, Itziar.

Etxaniz, Azkoitia.

Garate, Azpeitia.

Eizmendi, Azkoitia.

Lenengo saioan bertsolari guziak eguneko yaia, Urteberri, goraldu zuten.

Bigarren saioan gai au zuten nai ta naiezkoa :

« Iñaki Deuna, San Inazio'n

egintz onenak aukera

ta bere aintzaz, aipatu, gora

azpeitiaren izakera. »



Ederki erabili zan gaia. Batek Iñaki Deunaren zuzentasuna agertzen ba'zuan, besteak Yosu Langundia ta bere semeak goraltzen zitun.

Irugañen saioan epaile batek zirikatzen zituan eta zofotz eta zuzen erantzunaz, artu zituan bereak eta bi. Tolosa'n bezelaxe saio au izandu zan entzulentzat pozgañien.

Azkeneko ekitaldian bakoitzak ogibide bat zuan eta bestea zirikaka menpetzen saiatu ziran.

Uztapide'k kartzelan sartu nai zuan Kortatxo ! Muño ardo-edale agertuaz, Akotegi'ren ardandegia bota zigun ankaz gora. Zepai arantzale zala itxaso ta ibaiko araiak bereganatu zituan eta Uranga, nekazari yatoña agertu zitzaigun. Zertan yaraitu guzien lanak emen agertzen. Zein baiño zein obeto egon zirala esatea naikoa. Lan edeña yari zien epailei zein onena azaldu zan erabakia artzeko !

Onekin amaitu zan Azpeiti'n bertsolari yaia. Entzuleak zorutzen eta eratzaileak pozik.

Udal-etxean bildu ziran gero epaikariak eta gauzak ongi aztertu ondoren, erabaki au artu zuten :

Lenengo saria : Zepai'k, 75 laurleko.

Bigañen saria : Txapel'k, 50 laurleko.

Irugañen saria : Uztapide'k, 25 laurleko.

Laugañen saria : Muño'k, 15 laurleko.

Erabaki au aditzera eman ondoren Eusko Etxea'ko aretoan itzegin zuan Monzon yaunak eta bere eskutik yaso zituzten sariak. Bai bertso edeñak bota ere eskeñak emanaz.



## Ilbeltzaren 12'an Elizondo'n

Baztan'go uri nagusi onetan egin zan irugaíren azterketa. Napar ta benapaíak, zuberoar batekin neurtu ziran. Amar bertsolari azaldu zitzaizkigun beren trebetasuna neurtzera ta pozik egon litezke eratzaíleak, an agertu zan euskeltaletasuna ikusiz.

Auítetik, Batzoki-pean, bazkari eder batera bildu ziran bertsolari ta eratzaíleak, Donosti'tik autobusean yoan ziran bertsozaleak eta bertako aunitz yende. Ariztimuño yaunak, itz apaiñez eta esan mamitsuz, maitekor, agertu zien bertsolarien eginkizuna : euskaldunen batasuna ta euskerari bear diogun begirapena bere gaia. Astindu zituan goi ta be; berotu zitun entzulien biotzak ta bertan sendotu zan gure euskel izakerako maitasuna. Txalo be-roak yaso zitun «Aitzol» ospatsuak eta orobat bertsolariak beren kopla pozgaíekin.

«Antxitonea» trinketea, oztez gaiñezka zegon arátsaldean, bertsolariak asteko garaia baiño len. Agertu ziran auek, eta beren lekutan yaí ondoren ona zeintzu aurkeztu zizkiguten :

Mitxel Dargaitz, Otsondo.

Simon Ibaía, Sumbila.

Joanes Ibaía, Ziga.

J. M. Mutubeía, Eltzaburu.

Jean Haríet, Alduide.



Joanes Iriarte, Banka.  
Marziel Laíosa, Banka.  
Beltran Sahargun, Banka.  
Patxi Elorga, Lekarotz.

Epaileak, yuezak, beste lekutan bezela Euskaltzaleak eta Eusko Gaztedia'ren ordezkariak, ta «Basari» igazko txapeldun bertsolaria. Napar aldeko epaileak ere beaíeko ziran eta Zubiri yauna «Manezaundi» idazle ezaguna ta «Laíeko» izen pean gordetzen dan Irigarai idazle azkaía. Detxepare gaztea Benapara'koen izenean ikusi genduan epaikari.

Lenengo saioa asi zanean, bereala antzeman genion, gauza politak entzuteko zoria izango genduala. Zer-esan, doiñu ta gaiñontzako guzia azke izanik, ezez yardun ziran beren lanean entzulien pozerako.

Bigarren saioan gai au eman zitzaien :

«Euskeldun oron maitetasuna  
yazorik goi-goienera  
ore berakin gure arbasoen  
antxiñetako euskera.»

Bai bertsolariek ederki erantzun ere. Zazpi «probin-tziak», berak zioten eran, gogoz goraldtu zituzten. Zeiñek baiño zeiñek beroago ta indartsuago. Une aietan etzan euskeldunentzako mugarik, eta entzuliei, asieran, txalorik ez egiteko esan ba'zitzaien ere, ezin eutsirik, bein baiño geiagotan ausi zan agindua. Ura zan eusko gaía !



Irugaíen saiorako, beti bezela, epaikari batek ematen zien asiera. Bai erantzun bikaiñak entzun ere. Emen, entzuleak naiko paíe ta algara egin zuten.

Azkenengo saioan, langintza gaietakoan, Dargaitz labo-  
rari zala, astindu zuan Ibaía Simon eiztari zalako ta bai onek ziri edeíak sartu ere.

Ardua aupatu naiean Ibaía Joan yaíi zan eta bere anai Pedro, uraren edertasunak goraltzen. Gure ustetan, ura goraldtu bear zuanak gogo txárez ekin zion.

Haíiet Joanes'ek ezkonduen alde yokatzen zuan eta Iriarte gazteak ezkongaiak gora naiean. Batak ezkontza edeía zala, besteak, azke, libre obeto bizitzen zala. Sendia, familia, goseak eukitzea baiño obe zala ezkongai ta Yaunak daki zer esan zizkien alkaíi. Entzutekoa benetan!

Laíosa érotari ta Sahagun artzai ziran. Alkar laíutu zuten derki!

Atzenik, Elorga argin zalarik, Mutubeía zurgin, arotz, agertu zitzaizkigun.

Saio onekin amaitu zan «Antzitonea»'ko yaia. An bildutako yendea, pozaren-pozez, beíz ofelako bat noiz eratu leiken galdezka irten zan.

Edeía, benetan, Elizondo'ko yai au!

Andik laxter epaikariak alkar arturik erabaki au azaldu zuten:

Lenengo saria: Joanes Iriarte, Banka, Benapaía, 60 laurleko.

Bigaíen saria: J. M. Mutubeía, Eltzaburu, 40 laurleko.

Irugaíen saria: Jean Haíiet, Alduide, Benapaía, 25 laurleko.



Mitxel Dargaitz, Otsondo, Baztan, 15 laurleko.

Sariak Eusko Etxea'n banatu ziran eta bertsolariak eskeñak kopla banakin eman zituzten. Beste sari gabeko bertsolari guziei ere, aal zan guzia eman zitzaizen ta guziak konten, alde aietan esaten duten eran.

Baztandakak diotenez, ez dira berealakoan aztuko bertsolari yai onetzaz.

## Donosti'ko Batzaldia

Or ikusi dituzuten neurketa ondoren, azken batzaldia Sebasten Done aurégunean, igandea zala-ta ospatu genduan.

«Victoria Eugenia» antzoki apaiñean etzan entzule geiagorentzat lekurik. Sañera guziak auretik saldu ziran ta kanpoan geldi bear izandu zuan oztetza izugarñiak.

Goizeko amaiketarako epai-maiekoak gertu zeuden. Ariztimuño yauna buru zutela, Alzaga, Leizaola, Lekuona, Olaizola ta Eizmendi yaunak.

Beñi auek ematen dizkitzutena zan. bertsolariei asiera eman oi ziona; baiña sendian bat-betako ez-bear itun batek aldendu zuan bere eginkizunetik. «Basañi», igazko txapelduna, ainbeste eratara goraldtu bear degun gazte iaioak eldu zion gure lanari. Ta bai ederki egin ere!

Eñietan egin ziran neurketatik amar bertsolari aukeratu ziran azken batzaldi onetarako. Emen beren izen ta yatorñizko eñiak :



Zepai, Érezil.

Dargaitz, Otsondo.

Etxebería, Andoain.

Harriet, Aldude.

Uztapide, Zestua.

Lujanbio, Érenderi.

Mutubería, Eltzaburu.

Txapel, Azpeiti.

Iriarte, Irurita.

Txiñita, Altza.

Amar bertsolari auetatik Mutubería etzan azaldu ta  
gaiñontzakoak emen azaltzen ditugun era berean yañi  
ziran.

Oiala yaso zan unean txaloak keia zerioten. Ixildu  
ziranean, Ariztimuño yaunak itzaldi eder bat egin zigun  
bertsolari zañak gogoratuaz eta batez ere igaz emen gen-  
dun Matxin zanaren izena aipatuaz.

« Baseñi »'k asierako bertso au abestu zigun uñena :

Tolosa'n eta Azpeiti'n

izanduak gera,

baita Elizondo'n ere

zuek entzutera.

Onenak bezelaxe

zaituztegu aukera;

orain bertsoan azke

zoazte aстера



doiñuan ere libre  
nai dana esatera,  
onela goraldurik  
antxiñeko euskera.

Béreala asi ziran bertsolariak. Zer ta nola egin zuten, gure itzak baiño bertsoak berak obeto erakutsiko dizute. Eusko Gaztedi'ko mutilak sañean yañita yaso zituzten bertan esandako bertso guziak. Baleike bat edo beste bear bezela zuzen ez artzea; ez da berea aña, alegiñak egin zituzten ta geiago ezin. Geok oñazu ta osatu ditugu guzia artu etzituztenaketa irakuñi dituzten bertsolariak diotenez, ederki artuak daude. Emen dituzute, bada, lenengo saioko bertso batzuek:

### Lenengo saioa

#### ZEPAI

Yaiotzetikan emen nabil ni  
mundun batetik bestera  
guregandikan yoaten zaiguna  
ez da etortzen ostera.  
Bi gauz ditugu maitagañiak  
Yaungoikoa ta euskera,  
anai maiteak, saia gaitezen  
oitura zañak eustera.



## DARGAITZ

Agur, agur gustora naiz  
ementxe Gipuzkoa'n  
ta berttua eman bear dut  
guztiaren gustuan.

Gauza esamindu ongi,  
gaudelarik munduan  
gero anima iltzen danian  
salba deila zeruan.

## ETXEBERIA

Matxin zanari oroipen ordez  
gaurko nere agiriak,  
ura zan baiña argiagorik  
berotu al du eguzkiak.  
Entzule onak eskeiñi bada  
berai otoitz bereziak  
ta gaurko yaien eratzailiei  
damazkiet gorantziak.

## HARJET

Agur, emen gogotikan  
daude entzule guziak,  
zuengana naiz etori  
Napaña an utziaz.



Zeruko Yinko yaunari  
emanen dut graziak  
emen bilduta gerala  
zazpi probintziak.

### UZTAPIDE

Nere agurá emen bildu diran  
eusko donostiañari  
eta lantegi zoragarí au  
emen yartzen dutenari.  
Eskeñak eman bear dizkiet  
epai maieko yaunari  
oiez geñera teatro ontan  
dauden entzule danari.

### LUJANBIO

Laguntza on bat eskatzen diot  
gure Yaungoiko altsuari  
eta beraren indaíarekin  
ekin bear diot lanari.  
Au baiño toki edefaguak  
ez dira izaten nunari,  
egun on bat desio dizutet  
emen zaudeten danari.



## TXAPEL

Olerki batzuk abestutzeko  
guri digute agindu,  
pozik nitzake euskera alde  
zerbait egingo ba'gendu.  
Oraintxen baiña aldi obian  
ez naiz askotan izandu  
anai maiteak danok alkañi  
bear diogu lagundu,  
ez gendukake ezer paltikan  
ori egingo ba'gendu.

## IRIARTE

Ni ere ager bear naiz,  
bertsolari beña.  
Barkatu ezaidazute  
ez naiz arigaña.  
Nik gazte gaztetandikan  
maite dut Euskaleña,  
guziok maite dezagun  
geure abeña.

## TXIRITA

Agur eder bat egiten diet  
ementxen dauden danari  
ta batez ere gu yuzgatzera



etoñi diran yaunari;  
oiek ipintzen duten guzian  
elduko diot gaiari  
Yainkoak zerbait emango dio  
beian saiatzen danari.

### ZEPAI

la urtia da Matxin zana  
yauna mundutikan ila  
ura zan gizon pormala eta  
alde guzitan umila ;  
neu ez nitzake abiatuko  
lagun obiaren bila,  
biotzetik desiatzen diot  
zeruan gerta dedila

### DARGAITZ

Gazte gaztetik ezagutu dut  
nire lagun Matxin zana,  
bertsolari zuzena zen eta  
konprenitutzen zuana.  
Iltzela aditu nienian  
nik artu nizuen pena !  
Yinkoak zerun izan dezala  
Matxin zanaren anima.



II'garren BERTSOLARI EGUNEKO GUDUAN TXAPELDUN  
AUKERATUAK



1. «Txirrita»—Altza. 2. «Uztapide»—Zestua. 3. «Zepai»—Errexil  
4. «Dargaitz—Otsondo (Baztan). 5. «Iriarte»—Banka (Benabara)



TOLOSA'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Ondartza—Asteasu. 2. Ugartemendia—Amasa. 3. Pantxo—Asteasu.  
4. Ezeiza—Ibaña. 5. Moxo—Irura. 6. Txapartegi—Asteasu. 7. Lujan-  
bio—Erenderi. 8. Etxeberria—Andoain.



## ETXEBERÍA

Matxin zanaren eriotzakin  
biotza zidan xamurtu  
zenbat malko zuen begietan  
ordun ote ziran urtu.  
Gai onetan bota dituzute  
emen zenbait itz neurtu;  
orain bere luáldekoak nik  
emen nai ditut agurtu.

## HARĪET

Ora orain guzieri  
egiaz éraiteko  
gure éria duzut nik  
beti-beti maiteko.  
Yinkoak Euskalería  
maiterik beti dauko  
bere alde ni naizena  
ez dut ez ukatuko.

## UZTAPIDE

Nere maixu ta guzi det emen  
olerkari ikastola,  
ene anaia maitagaíak  
artu entzuteko aioala.



Emen ikusten det nik yendiak  
maitasun pixkat ba-dula,  
bestela oinbeste euskeldun ezin  
onera bildu iñola,  
biotz bařendik agurtutzen det  
euskaldunaren odola.

### LUJANBIO

Ai nere biotzeko laguna  
zera euskaltzale piña,  
batzuentzat ori da poza ta  
beste batzuentzat miña.  
Askok ez dituzte ezagutzen  
goña eta urdiña;  
baiña gizonak ez du izaten  
beti aldarte berdiña;  
gaur akaso gaizki izango da  
lengoan ondo egiña.

### TXAPEL

Nere anaia biotzekuak  
eta ařeba kutunak  
eldu zaizkigu bata besteak  
ezagutzeko egunak.  
Mundu ontatik yoan ziraden  
gure auřeko aitonak,



Euskaleñi'ko lege santuak  
ondo gorde zituztenak.  
Euskadi zaía maite dezagun  
euskera maite degunak.

### IRIARTE

Gernika'ko arbolak  
gogor dauka azala.  
Ni ere mintzaten nuzu  
euskal zintzo bezala.  
Gure zeruko Yinko yaunak  
konserbatu dezala,  
euskaldunak ar dezaten  
arbol oñen itzala.

### TXIRITA

Zuberoan ditugu adar bi  
Laburdi irugañena,  
Bizkai, arakar, gipuzkoañak  
osatzen degula dana.  
Ori munduan yakiña dago  
ez beza iñork artu pena,  
nik oiek emen ikusi eta  
asko poztu zait bañena.

Bertso onekin amaitu zuan Txirita'k lenengo saioa.



## Bigarren saioa

Bigarrena asterako esan zitzaien gaia. Ba-dago bertso ederik emen.

Asiera emateko « Basari » k onoko au ebestu zuan:

Entzun anaiak; orain asten da  
bigarren bertso saioa :  
doiñuan azke, baiña gai batez  
guziak yaraitezkoa.  
Ez dezute, ez, gauza alaia  
orain kantatutzekoa :  
« Geia zitalen ondoren txarrik  
azalduz bota bertsoa  
ta agertu sutsu zein geiagoka  
beretzako gorotoa ».

Onela yari zioten dei oni :

### ZEPAI

Orelakorik aditzerikan  
ez nuan uste oraindaiño,  
yoan dan aspaldin ibilia da  
gai ontan pranko engaiño.  
Asarietan oituak gaude  
bekotatikan goraiño,  
orelakorik etzan entzuten



kasi-kasirik gaurdaiño ;  
pake txarrena obeago da  
geñarik onena baiño.

### DARGAITZ

Gerla eta pakea ez dire  
mundu onetan berdiñak,  
gerlak beti eman bai ditu  
bazter guztietan miñak.  
Ba-dakizkigu negargañiak  
egundo ere ez atsegiñak  
gerlan aragi baiño naigo dut  
bakietako sardiñak.

### ETXEBERÍA

Une onetan yañi gaituzte  
gu auzez-auze geñari,  
goñotorikan izan ezkeroz  
bear genioke ari.  
Andik etoñi ziran kalteak  
ezagaturik ugari,  
galde bestela seme kutunak  
palta dituzten amari,  
sendietako gauza ituna  
beti izaten da ori.



## HARĪET

Gerla gauza izugafia  
au bear da konprenditu  
lehenekuak probatzeko  
naiko zalakoan nauzu.  
Onegatikan aditutzian  
kezka gogor bat yartzen du ;  
beti bakean bizi gaitean  
nik izan dut desiatu.

## UZTAPIDE

Kaltegarĳiak dira guretzat  
beti emen gudateak,  
ba-dakizute lenego ere  
itxi zituzten ateak.  
Gauza tamala ematen digu  
ara gudari yoateak  
eta zertako dira emengo  
aberatsen izateak,  
geraĳen kontra yaikiko dira  
Euskalerĳiko yendeak.

## LUJANBIO

Geĳa kontuan ni aritzea,  
ongi pentsatu ezkeru,



nere esanak agertu eta  
ori ez da misterio.  
Egun batian baiatu giñan  
gorotatuz ezin geio,  
anaiak igual ikusten dira  
alkaíeren kontrario  
eta oíela yaíak ditu  
geía dezula merio.

### TXAPEL

Negar malkuak saltatzen zaizkit  
gauza oiek ikusita,  
euskaldun askok kanpoetara  
egiten dute bixita.  
Kulparik gabe amaika seme  
gelditzen dira an ilta,  
iñola ere kaíera onik  
ez dute irabazita,  
esku onetan gelditzen dira  
ama semeak yaíta.

### IRIARTE

Nik ere pakea duzut  
egitako maitia,  
oíela esplikatzen dut  
bertso au eíaitia.



Nai duzuiat adirazi  
gerlak duan kaltia;  
baiñan euskaldun artian  
segur bakia.

### TXIRITA

Zenbat érezo egin izan det  
nere deboran elizan,  
ta pozik nago ikusirikan  
pakian nola gabiltzan.  
Ni naizen bezin kobarderikan  
iñor ezin leike izan  
semeak geía ez yoateatik  
mutil zar gelditu nitzan.

### ZEPAI

Geía gaixtuak sortu ziraden  
Yesus mundun zan artian,  
petralkerian bizi nai eta  
beti gofoto batian.  
Obe genduke orain yartzea  
alkaíen borondatian,  
gofoto txaíak utzi ditzagun  
ongi gogoratutzian  
zenbat anaia kulparik gabe  
izkutatu dan lurpian.



## DARGAITZ

Zenbat amak negar egin zun  
gaixuak geratian  
orain bezela desiatzen nun  
euskaldunaren artian  
bizi zedila orduan ere  
gustora eta pakian,  
euskaldun pranko bearik gabe  
an sartu zuten lurpian,  
negar egin dut amaika aldiz  
gauza au gogoratzian.

## ETXEBERIA

Sendi askoren edertasuna  
nola degun osatuba,  
maitetasuna degula bide  
izagun begiratuba.  
Pakia dala ongi dago bai  
Euskalefi maitatuba,  
urutiratu al ba'lerike  
zitalkeri gorotuba  
eta oraindik urutiago  
gera madarikatuba.



## HARĪET

Geñaren egitekoak  
nola ditudan ikusi  
egin ziran gauza itxusiak  
guziarendako, noski.  
Eñi guzia odol goñitan  
ikusi dut aurtzaki  
Etsaiengantik gelditu dira  
antxen eskualdun zernai.

## UZTAPIDE

Geña oñetxek ipiñitzen dit  
bere aldiko itzala .  
zeiñek ez daki gauza oñetan  
leen ibili zirala.  
Urte datzuek igaro dira  
guda ori izan zala,  
kristau artean oñelakua  
bai negargañia dala,  
beñiz'e guda bildurgañitik  
Yaunak aparta gaitzala.

## LUJANBIO

Ni toriatzen asko ari dira  
geientsuenak alpeñik,



Euskaleña'n ez degu bear  
iñondikan ere geñik.  
Iñortxok ere ez degu maite  
ez frantzes eta napañik,  
nunai anaiak bat egiñikan  
ez gera geok bakañik,  
danak pakean bizi gaitean  
ez degu geña birañik.

### TXAPEL

Au ere esan egin bear det  
agoa bete-betian.  
Yesus maitea serbitutzen det  
berogeñ ta bi urtian.  
Ez det pentsatzen izango danik  
iñorentzako kaltian,  
oitura zañai yañaitutzera  
ea saiatu gaitian,  
geren bizitza igarotzeko.  
Yesus'en borondatian.

### IRIARTE

Ez dirade politak  
gerlaren suietak,  
or gainian emanen ditut  
añazoina supitak.



Txiñita'k eman dizkigu  
erespuesta politak,  
mutil zar dala, semerik ez du,  
eran digu Txiñita'k.

## TXIÑITA

Asko dirade nai lutekenak  
mundu danian nagusi,  
pakian bizi diran kristauak  
bere soldadu ta guzi.  
Orlakuari tira atzetik  
yoan dedila igesi,  
gera nai duan gizonak ez du  
salbaziorik merezi.

## ZEPAI

Arazoi aure esan bear det  
oso umil ta serio,  
egia klaro ager dezagun  
gezurak ez du balio.  
Beti or daude gizonak gertu  
gera yartzeko propio,  
geren denboran yafi digute  
garakin ainbat erio,  
zenbat gurasok negar egin du  
orixen dala merio.



## DARGAITZ

Egi aundiak éran bear ditut  
nere biotz-biotzetik,  
bear gabe partitzen gera  
bertze batzuen atzetik.  
Nik zertarako yoan bear nuen  
gerlara euskal éritatik,  
zazpirak bat izan ba'giñan  
etzegoan orlakorik,  
besarka gaiten orain guziok  
geio lotzeko gogotik.

## ETXEBERÍA

Gerá dala ta nik esan nai bat  
ementxen daukat ba'uan,  
gertatu zala urteak dira  
ez da aztuko luzaruan.  
Iñon semeak eramatea  
ai, zeíñen txarki daguan  
eta ama batek pena artzen du  
seme bat kendu orduan,  
nere osaba maite bat ere  
gelditu omen zan Kuba'n.



## HARĪET

Mutuńak ere ba-dira baińa  
alde orotan artu,  
ta pakean bizitzeko  
Yainkoan lagun gaitu,  
sobera mintzatu gera  
pakea bear dugu,  
zazpi probintzi algańetan  
bear gińuzke uztartu.

## UZTAPIDE

Emen gerade zazpi senide  
danok alkar ezagunak,  
leno ikusi ez ba'degu ere  
ona iritxi egunak.  
Zabal ditzagun orain itxiak  
egon diran ate ilunak,  
erukańiak dirake anaiak  
bai gure biotz bigunak  
guda utzita alkar maiteak  
bear degu euskaldunak.

## LUJANBIO

Gure Yainkoak ematen die  
zintzoki dabiltzanari



ura naikoa ibili dedin  
erota umilenari,  
orain guk zuzen yoka daiogun  
bakoitzak bere lanari,  
arek graziak emango dizka  
pakean dabilenari

## TXAPEL

Bi gauza dira diperentiak  
txuria eta gofia,  
bear bezela artu biaiogu  
gauza aueri neuria.  
Beste lan gabe itzegitera  
nola nagon etoria,  
kulparik gabe geia yuatia  
ori da tamalgaria,  
gauza ederena emen daukagu  
munduan, Euskaleria.

## IRIARTE

Nik ere oren gainian  
beareko dut asi,  
geia oretako gauzak  
ainbat ziran itxusi.



Ni bizi naizen artian  
nai nituzke ikusi,  
euskeldunak, gizon onak,  
Euskalerían nagusi.

## TXIRITA

Okasiua ara yendiak  
nola gerta litekian  
obea degu geátan baiño  
bizi umore onian.  
Zenbait bezela ez naiz izaten  
fondetan eta kafian,  
geían gosiak baiño naigo det  
naikua yanez pakian.

## Irugañen saioa

Bigañen saio au amaitu zanean, atsedeen alditxo bat eman zitzaien bertsoariei ta bitarte artan entzuliak argi azaldu zuten beren poza.

Irugañen saioa, batzuen ustez zailena, atsegiñena oi zaie geinean entzuliei.

Asierak ematen «Basañi» genduan eta berak irakufitako bertsoa au:



AZPEITI'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Nèkezabal—Zarautz. 2. Kortatxo—Itziar. 3. Muño—Bidania.  
4. Txapel—Azpeitia. 5. Etxaniz—Azkoitia. 6. Eizmendi—Azkoitia.  
7. Garate—Azpeitia. 8. Uranga—Itziar. 9. Akotegi—Azpeitia.



ELIZONDO'KO GUDUAN JARDUN ZUTEN BERTSOLARIAK



1. Mutuberria -Eltzaburu (Ultzama). 2. Harriet -Alduide. 3. Lañosa -  
Banka. 4. Elorga -Lekarotz. 5. Sahargun -Banka. 6. Ibaña (Juan) -  
Ziga. 7. Ibaña (Pedro) -Ziga. 8. Ibaña (Simón) -Sumbila.



Asi beaáean naiz  
zirika bertsoan;  
nik galdetu ta zuek  
erantzutekotan.  
Paáez lertuko zaigu  
yendea saioa ontan,  
ez al zerate egongo  
oraingoan lotan.

Emen dioazkitzute asiera ta erantzun batzuek :

### ZEPAI

Asi zaite zu, Zepai,  
neri erantzuten,

.....

Gutxitan yardutxen naiz  
gezuák esaten.

Lendik ere dakizu

nolakoa naizen,

leialaren itxurik

ez al diazu ematen?

### DARGAITZ

Zu zera bigaáena  
adiskide Dargaitz.

.....

Nere izena dabilte  
or oboetan maiz.  
Euskaleáia'n yaiota  
bertan azia naiz,  
gauza ori yakiten  
zuk etzenduan gaitz.

### ETXEBERÍA

Abizena daukazu  
zuk Etxebeáia,

.....

Oraintxen artua dit  
onetxen neuáia.

Emen nazute onera



gogoz etoía  
nere apeiliduen yabe  
beste asko dira.

### HARÍET

Banka'tik etoíta  
Haríet gaztia  
.....

aspalditik daukat nik  
orlako suertia ;  
plazer izandu dut nik  
ona etortzia,  
emen ikusitzen dut  
auskaldun yendia.

### UZTAPIDE

Nolatan zabilta zu,  
kaixo Uztapide?  
.....

Bein etoíi bear da  
etoíi naiz ni're.  
Gaur Donosti'an daude  
amaika adiskide,  
onetxek ematen dit  
ainbeste izpide.

### LUJANBIO

Lujanbio adiskide,  
nolatan zabilta ?  
.....

Besua elbarítuta  
ementxe gabilta. (1)  
Ala ere kunplitu det  
emandako itza,  
xamuía uste nun ta  
gertatu zait gaitza.

### TXAPEL

Txapel izenarekin  
zera ezaguna.  
.....

Neri gustatutzen zait  
olako laguna,  
ondo pentsatutzen det  
gau eta eguna,  
auxen da beti guri  
kobeni zaiguna.

---

(1) Besoa, lepotik zutzilika  
daukan oialtxo batez oztalia  
du.



## IRIARTE

Nungua zaitugu zu  
adiskide Iriarte ?

.....

Irurita'n sortua  
Napa'ko parte.  
Prantzian izan nauzu  
ia orain arte  
eta lan egiña naiz  
beti gure parte.

## TXIRITA

Zer egiten dezu or  
lagun zar Txirita ?

.....

Lasai ementxen gaude  
deskantsun ya'ita.  
Len ere ba-dakigu  
alka'eren be'i ta  
ez det deusen bildu'rik  
onea eto'ita.

## ZEPAI

Euskera piztutzeko  
gauzarik onena.

.....

Auxe da: bildutziak  
danok alka'ena.  
Emen nabarmentzen da  
zein dan azka'ena,  
zeruan sartuko da  
orla eiten duena.

## DARGAITZ

Aunitz yende daukazu  
auean entzuten.

.....

Mitxel'ek ta yendeak  
konprenditzen zuten.  
Napa'u'tik Gipuzkoa'ra  
eka'i ninduten,  
benapa'ak bertsoan  
orain ari gaiten.

## ETXEBERIA

Yai auek goraltzeko  
zer degu bea'ra ?

.....

Toki batera bildu  
euskaldun inda'ra.  
Ortarako ba-dago



bertsuan beara,  
maite dezagun danok  
gure Lege-Zara.

### HARIET

Zintzoki gorde zazu  
euskal izatea.

Aiskide, ez dut ukatzen  
dutala maitea.

Nik nai dut beti orla  
euskaldun yendea  
bertan izandua dut  
nik ere sortzea.

### UZTAPIDE

Len ere egiten ziran  
onelako yaiak.

Zenbat bildu ote dira  
onera anaiak.

Ementxe dabilzkigu  
yaritako gaiak,  
danak ikusten ditut  
aurean alaiak.

### LUJANBIO

Zure alde oietan  
zer dio yendiak ?

Batzuek gizadunak  
bestiak gabiak.

Ala ere kunplitze'itut  
oraingo legiak;  
asko ez dira izango  
gu baiñon obiak.

### TXAPEL

Euskeraren zuatzak  
zuek zeratela.

Itzegin bear degu  
nola edo ala.

Gauza onik guretzat  
ez dago bestela,  
aitortzen dizut orain  
maite zaituela.

### IRIARTE

Etzaude adiskide  
bertsolari txara.



Sortzetikan naukazu  
betiko napaía.  
Zuengana etortzeko  
ba-nuan indaía,  
zazpiak bat eiteko  
ba-dago beaía.

### TXIRITA

Gaur ba-daukagu emen  
ai zer umoria.  
.....

Sekulan ez det izan  
orlako zoria.  
Or zabilta zu nere  
kupira gabia,  
zeiñek bila lezaken  
beste bat obia.

### ZEPAI

Ezkongairik ba'zaude  
esan zuk zergatik.  
.....

Leno bila ibilita  
nago ni gogotik.  
Baiña martxa berdiña

artzen da denatik,  
gauza on gutxi dago  
mutil zaíagatik.

### DARGAITZ

Zuetzat garai ona  
noiz da bertsoakoko ?  
.....

Arnoa dudalarik  
netzat edateko.  
Eldua naiz ni orain  
emen éraiteko,  
danak bat yar gaitezen  
pakia izateko.

### ETXEBERÍA

Bapo yan eta edan  
bertsuak botiaz.  
.....

Oírela bizi gera  
aurten eta igaz.  
Ta lana dan tokitik  
al ba'degu igas,  
guk alperkeriari  
eman diogu éraz.



## HARĪET

Donosti'n zer gustatu  
zaizu, gaur, geiena ?  
.....

Auxe dezu aspaldian  
nere gogoena.  
Edeŕa zala beti  
aitu nuen fama,  
oraintxen ikusten dut  
edeŕa dagona.

## UZTAPIDE

Polita al deiozu  
dala Donostia ?  
.....

Len ere aditu nuen  
beraren famia.  
Baiñan poztu naiz asko  
gaur ere ikustia;  
neretzat polita da  
oso Donostia.

## LUJANBIO

Gogoan eukitzeko  
gaurkoan eguna.  
.....

Izan ere olakua  
pasatzen deguna.  
Yende alaia eta  
asko ezaguna,  
ortan konten al zera  
zu nere laguna.

## TXAPEL

Mai ingurun yaŕita  
bertso ta yatena.  
.....

Ni ere etoŕi naiz  
aiskide batena.  
Diferentiak dira  
poza eta pena,  
ondo bukatu nai det  
asitako lana.

## IRIARTE

Oilaxko pare baten  
mamiak garbitzen.  
.....

Mila ere yateko  
ez nauzu aŕitzen.  
Len ere Euskaleŕia'n



asko dut kuřitzen,  
ezurak eta zaiñak  
danak miliskatzen.

### TXIRITA

Gustatutzen al zaizu  
zuri bixigua?

.....

Bai, ta yan egiteko  
ba-det desiua.

Ori da neretzako  
mokaru goxua,  
gero zurut eginda  
a zer pasiua.

### ZEPAI

Zer iruditu zaizu  
orek esan duna?

.....

Ez nuan uste zanik  
orlako yatuna.  
Aspaldin det maiean  
oso ezaguna,  
bera nabarmendu da  
asko biar duna.

### DARGAITZ

Zuria izango da  
puntu zorotzena.

.....

Ez da beroena ta  
ezta're otzena.  
Euskera galtzeakin  
artzen nuke pena,  
batera yunta bear da  
azkenean dena.

### ETXEBERÍA

Zein uste dezu dala  
iaiona bertsoan?

.....

Oen izenak ditut  
aditu askotan.  
Gaizki dabiltzan gauzan  
zuzendutzekotan,  
oraintxen arkitzen naiz  
ia erdi lotan.

### HARİET

Saria irabazteko  
saiatu mutila.

.....



Politak dira orain  
desira guzia.  
Egin ez degu ontan  
entregu aundia,  
bentzitzen degu emen  
gipuzkoar guzia.

### UZTAPIDE

Bertsotako gogoia  
etzaizu agortu.  
.....

Ez egin ezkeroztik  
mundu ontan sortu.  
Ez kantatutzekotan  
nitzake ni lertu,  
eztaía ausi arte  
eingo naiz agertu.

### LUJAMBIO

Bertsolari sail ona  
zaudete bildurik.  
.....

Orduan ez daukagu  
iñoren bildurik.  
Ez ba' dirazu yartzen

gai oso xamuñik,  
egiaz yardungo det :  
nik ez det gezuñik.

### TXAPEL

Ementxe gaude danok  
zuri entzuteko.  
.....

Ba-daukat nik gogoia  
zerbait esateko.  
Ezer gutxi palta det  
ona izateko,  
apetitua daukat  
bazkaita yoateko.

### IRIARTE

Zuekin yende auxe  
dago poztuirikan.  
.....

Ez bai dute ikusi  
oñelakorikan.  
Nik eñanen dizuet  
orain orgatikan,  
izugañizko tragua  
yaía dut tripan.



## TXIRÍTA

Ikusi nai zinduket  
asmatu eziñik.

.....  
Entzun dezu amaika  
bertso eder ta fiñik;  
bestela ez genduke  
emen gauza onik,  
ez uste oraindikan  
nekatu naizenik.

## ZEPAI

Orain, gauza ba'zera  
erantzun zuk neri.

.....  
Alde o'rek ematen dit  
naikua komeri.  
Zer esan pentsatzen det  
begira danari,  
yator segitzeiozu  
zeuk dezun lanari.

## DARGAITZ

Kaixo bertsolaria  
nolatan zabilta?

.....

Zerurako artuta  
ementxe dut giltza.  
Geiago ez ba'nitake  
emendikan mintza,  
sartzerik ez duenak  
kanpuan dabilta.

## ETXEBERÍA

Zo'rotz erantzutea  
daukazu onena.

.....  
Itza entzuna det nik  
«Basa'ri» o'ena.  
Nai ta nai ez esan zuk  
orain dato'ena,  
zurekin itzeiteko  
prest daukak ba'ena.

## HA'RIET

Nekatua zaitugu  
ustez onezkero.

.....  
Pentsatu ta bota nik  
nai nizuke gero.  
Ni nauzu orain emen



mintzatuko bero,  
plazer nuke zuekin  
ementxen urtero.

### UZTAPIDE

Zurútak ematea du  
indaía ugari.

Orduan ekiozu  
bertsotan lanari,  
Gauzak orla utzi gabe  
eldu napañari,  
ez diogu utzi bear  
ez gauza onari.

### LUJANBIO

Aurtengo urte auxe  
gogoan artuaz.

Guazen auñera ere  
bertsotan sartuaz.  
Orain guk al deguna  
poliki sortuaz,  
eziñean aguro  
gerade benturaz.

### TXAPEL

Guziok bat eginda  
bertsoak goraldtu.

Abuan izan eta  
nik ezin umildu.  
Mandatu zaía dezu  
biar det bialdu,  
gure oitura ona  
ez dedien galdu.

### IRIARTE

Napar aldeko lanak  
emen azaltzeko.

Ez da gauza pobria  
teatroan éraiteko.  
Ni ere ala nuzu  
emen kantatzeko,  
etxe mutil ona naiz  
beregi yesteko.

### TXIRITA

Onekin bukatzen da  
oraingo saiua.

Naiz bertsoetarako  
apropos yaiua.  
Atia itxi zaigu  
baita're leiuia,  
par eizu, zertan zaude  
óren seriua.

### Laugarén saioa

Laugarén saioa asterako, bertsolarien artean langintzak banatu ziran eta bata bestearen aurka yaíaz ara nola zeuden :

Zepai, uztargile ta Txirita, itzai.

Dargaitz, kontrabandista moíoi ta Iriarte,  
kontrabandista nagusi.

Etxebeña, erotari ta Txapel, ikazkin.

Beste iru gelditzen ziran eta auek onela yaíi beáean arkitu zan epai-maia.

Lujanbio, ardozale ta Harriet, tabernari.

Uztapide, sagardo-zale.

Asierako bertsoa bota zuan oraingo aldi onetan ere, bestetan bezela « Basaí » argiak. Ona bera :



Uztargilea Zepai izanik,  
Txirita degu itzaia ;  
kontrabandista nagusi Iriarte  
Dargaitz duela mañoia.  
Txapel ikazkin, Etxebería'k  
aupatuz erotaria ;  
Mutubería ez da etoñi ta  
Hañiet da tabernaria,  
Uztapide da sagardo zale,  
Lujambio ardo zalia.

## ZEPAI

Jose Manuel nola naguen  
zuri begira yaña  
tratu onetan konpontzekotan  
onera zera etoña.  
Nik aditzera ba-nun ziñala  
itzai ikaragaña  
neri noiz paatu bear dirazu  
egin nizun uztaña.

## TXIRITA

Gu biok emen ikusi eta  
yendiak poza artzen du  
antziñetako adiskideak  
alkar biogu lagundu.

Oker zabilta gizarajoa,  
bear zenduke zuzendu ;  
beste uztaí bat emen daukat  
baldin egingo ba'zendu.

### ZEPAI

Gose bolaran bildurik gabe,  
esan daiogun alkaí,  
oficial ona naizela ezkar  
egin didazu igaí.  
Lengo uztaíakin zure idiak  
etziraden gaizki yaí :  
beste bat ere egingo dizut  
nai dezunian etoí.

### TXIRITA

Nere idiak ibiltzen dira  
oso yoera puertian  
ez dute gaitzik ere izandu  
yoan dan urte betian.  
Pama puska bat ba-dezu baiña,  
yakinduria apartian ;  
suerte onikan ez dezu izango  
bat ona egin artian.



## ZEPAI

Neri zertako desairatzeko  
oñenbesteko enpeñu,  
ziria sartuko zeniguke  
guk sinistuko ba'giñu.  
Zure idiak gose plakian  
ba-dute amaika kariñu ;  
uztaía baño obe zenduke  
ondo goberna ba'ziñu.

## TXIÍITA

Nere idiari komeni zaie  
izateko anparua,  
zuk euki dezun kontua baiño  
pixkat obexiagua.  
Intxaurárekin tratua egin da  
bialdu ziran pagua,  
nai dezunari saldu zaiozu,  
an geldituko da ua.

## ZEPAI

Aizu, Txírita, esango izkitzut  
segiturikan egiak,  
zure idiak ez ditu galdu  
uztaí onen premiak.

Disimuluak gezuía izanda  
dauzka bere alderdiak :  
uztaí onik ez du beñere  
gosiak dauden idiak.

### TXIRITA

Mundu onetan pizkoíagorik  
gezur esaten zu baiño  
izango dira, baiña nik orain  
egia dizut esango.  
Alde ortatik bildu liteke  
zerbaiteren aginaldo :  
gose egaírik ez daukate,  
governatzen ditut ondo.

### ZEPAI

Beren denboran pasatu dute  
amaika otz eta bero,  
aundi xamaíak dauzkazu baiña  
ez da izango luzaro.  
Onen idiak karga aundian  
bizitzen ez daude giro,  
itzaia beíz engañatzen da  
zuíuta izan ezkerro.



## TXIRITA

Nere idiak osatzen dira ;  
baiña zu diruzalia,  
idi oietxek mendera nairik  
ba-daukazu zuk premia.  
Oju aundia egiten dezu,  
dirudizula prailia ;  
idiak gosez ilko lirake  
baldin zuriak balia.

## ZEPAI

Komeni ez dan arazoirikan  
zuri ez dizut esango  
ta nik emendik agertu arte  
ez al zera ortik yoango.  
Zu baiño itzai zataágorik  
munduan ez da izango,  
lengo uztaía pagatu arte  
besteik ez dezu eramango.

## TXIRITA

Eztul utziak ez du balio  
lasai ibili zaitia,  
bertsua orain botako dizut  
nere amigo maitia.

Gerta ez bada uztaí on bat  
alde ontara yoatia,  
kostako zaizu nere atzetik  
dirurik eramatia.

### DARGAITZ

Egi aundia éran bear dut  
garbiki naiz emen asi ;  
ni naiz mutil kontrabandako,  
ori dutala nagusi.  
Nere ustien zenbait duro  
dituela irabazi,  
biaja pranko egin dut baiña  
patu gabe nau utzi.

### IRIARTE

Adiskidea bear dutela  
enetzako kuadrila ;  
ni ere sortu ezkeroztik  
kontrabandan nabila.  
Iriarte nagusi eta  
Mitxel Dargaitz mutila ;  
muga bazteretan beti  
beldurturik dabila.



## DARGAITZ

Muga bazter oitan nabil  
belduía ta ikaratan,  
armadunak ikusten dut  
an diela bazteretan.  
Nire ikara ta nekiak  
beti-beti alferetan,  
nausia gero baitago  
mutilari zoíetan.

## IRIARTE

Adiskidea nik ez dauzut  
aspera ortan zoíik,  
nunai agertutzen nauzu  
nere burai aitoíik.  
Zuk ere ez baldin ba'dezu  
or edaten napaíik  
maiz ibiltzen zera baiña  
karabineron bilduíik.

## DARGAITZ

Karabiñuruen belduía  
daukat muga guzietan,  
sobera ikusten ditut  
oitantik bazteretan.

Karga bizkañian nuan,  
bide guzia neketan,  
pagamentun esperantza  
ondoko egunetan.

### IRIARTE

Ene mutiā ba-daukazu  
ortan miā pikardi  
zertan dugun guk solasa  
eman zazu eguardi.  
Ortakotz éranen dut nik  
osoarekin lau erdi  
lengoan galdu zazkitan  
gutxinaz beñeun ardi.

### DARGAITZ

Galdu badin ba'nitun'e  
ek etziren neriak ;  
iñakala egin nuen ta  
yan zituen guardiak.  
Ez da ongi gezur ératia  
emen éraizu egiak  
egiere argi bear dezu :  
mutiā galdu ardiak.



## IRIARTE

Mugan zer gertatua den  
Napa'ua'ko partian,  
egi aundiek éraiten  
emen asi gaitian.  
Mitxel bere ardiakin  
mugatik yoatian,  
berak galdu ta lo egin du  
txe'itegi batian.

## DARGAITZ

Barkatu, otoi, nagusia  
balin ba'naiz loak artu,  
zu deskantsoan zaidela  
det ardi pranko pasatu.  
Ardik orduan kontua dauka,  
zuzen bidean aldatu,  
pagatuko nizuela-ta  
galtzenen naiz gelditu.

## IRIARTE

O'réngaitik emanen duzu  
nik dituan zentzuak,  
beti garbi mintza nuzu  
eta a'razoi zintzuak.

Mitxek ořetxek ba-ditu  
izugarızko gautzuak,  
ardik ez ditu ezagutzen  
ernai eta antzuak.

### DARGAITZ

Gizon ori ez du laguntzen  
nire uste zentzuak,  
edo bertzela gezuřetan  
emanen ditu bertsuak.  
Bere iñalak eginen ditu  
emen mutiā gaixoak ;  
beriz obeki berekoitut nik  
ernariak eta antzuak.

### IRIARTE

Ořelaxen mintza nuzu  
egia eřaiteko,  
gizon koplaria zara  
kontrabandan ibiltzeko ;  
bainan da artu zazu  
obeki portatzeko,  
bertzela zor zaizkizuna  
ez dautzut pagatuko.



## ETXEBERÍA

Nere lanari ekin biaiote  
albiste auxe artzian,  
nere denboran ez da izandu  
mingaiña oso atzian.  
Lenago ere oiturik nago  
ain yardun erantzunian ;  
érotaria naiz ni izatez,  
egite au emantzian  
ta aizkide batek zaku iriña  
diru gabe eraman zian.

## TXAPEL

Ni ikazkintzat yuzgatu naute,  
zu beriz érotaria,  
gusto ba'dezu entzun zaidazu  
esango dizut egia.  
Tristurarikan zuk ez daukazu  
ain zaude gizon alaia,  
txintxotasuna utzita zaude,  
tranpa zale ugaria,  
kontzientzia garbitutzeko  
ba-dadukazu premia.

## ETXEBERÍA

Ni érotari langintzan naiz ta  
«Txapel» ori ikazkiña,  
alare ongi izaten beti  
saiatzen naiz alegiña.  
Ordaindu gabe eraman ziran  
lengo batian iriña,  
pagatutzeko konturik ez du.  
aitzeki ugari baiña,  
etzenduke ez ori egingo  
zintzua izan ba'ziña.

## TXAPEL

Zure aldian beti izan naiz  
oso biotzez biguña,  
lagun guziri ondo laguntzen  
egiten det alegiña.  
Zuk or daukazu yenero dana  
neretzat ez da berdiña  
ongileari gaizki egiteko  
zuk beti daukazu griña:  
iriñen partez yartzen didazu  
edozer gauza zikiña.



## ETXEBERÍA

Nere érotan ez da sartutzen  
garien partez artua,  
«Txapel» en gezur ori daukagu  
lotsik gabe ausartua.  
Gaizki zuk esan ez yakin eta  
gezurá zuk agertua,  
gaizki esana biltzera beriz  
zugandik naiz beartua  
edo bestela zeure otsona  
ez dezu ipiñi edertua.

## TXAPEL

Érota ontako nagusi yauna  
nola zeraden zeñori,  
irin zatañak saltzen dizkatzu  
deskuidatutzen danari.  
Len ere nago ikasia-ta  
etzait zuria komeni  
pixuentzako ona dala-ta  
zikiña bota iriñari,  
zazpigaréngo mandamentuak  
ez du agintzen gauz ori.

## ETXEBERÍA

Iriña eraman nere etxetik  
ordaiñez ekaí ikatza,  
óren kopeta lotsagabea,  
azala beíz du latza.  
Bere auera nik auéregi  
ez naike sartu beatza,  
langintz arlote batean dabil  
ta ezin izan aberatza;  
pagoa eskatu, gaztaiña ekaí,  
bide okeéretik zabilta.

## TXAPEL

Au ere esan bear nizuke,  
ortara ari naiz bertsuán,  
nere langintzan aritutzen naiz  
satisfacio osuan.  
Bere aldera itzegiten det  
bera bai daukat goguan,  
gauz onegatik inbustaria  
lengoetan ba-zenduan,  
itza edeák mingañez baiño  
kontzientzia auzuan.



## ETXEBERÍA

Zaku ikatza ekartzekua  
aspaldi dan luzaroan,  
itza eman bai gure etxera  
ez da yun oraindaiñoan.  
Uste al dezu, ai! ez dedala  
nik edukiko gogoan,  
artutzen det bai buruan garbi  
zeiñek zer eraman duan,  
gure erota txara baldin'ba  
nai dezunengana yuan.

## TXAPEL

Zer kontatua pranko ba-daukat,  
esplikatu al ba' nitza,  
Etxebería, entzun biazu  
orain diyuazun itza.  
Ez nuben uste zendubenikan  
oren yenio zipotza,  
gaizki egiten daramakizu  
oraindaiñoako bizitza  
zuzendu zaitez fede onean  
biotzetik ba' zabilta.

## ETXEBERÍA

Irin ederik egitekotan  
nik bueltatzen det aña,  
zintzo ta zuzen daukat etxea  
oso egoki yaña.  
Ikazkin batek saldu bear nau,  
kiebra yo det orain ia;  
irin zakuaz etxea ustü,  
eraman detan guzia  
eta alare itzegiteko  
onek ba-du ausardia.

## TXAPEL

Bein bear zun da onek oin ere  
gezur galanta esan du,  
len egindako deskuido danak  
orain nai ditu zuzendu.  
Onek esanda itz sakonikan  
nik ez det entzun izandu,  
besten pekatuk konpesatuta  
zeure danak almazendu  
garbi zenduke kontzientzia,  
len ongi egin ba'zendu.



## HARĪET

Tabernaria nauzu eta  
orai nauzute mintzatzen,  
arno zalekin nola naizen  
ene bizian portatzen.  
Gizon onak direla die  
dute segur markatzen,  
bainan uraren plazer txara  
ez dute ongi kontatzen.

## UZTAPIDE

Zuruteruak emen gerade  
Donosti'ra etoñiak,  
eran nairikan ardo beltza ta  
sagardo ori goñiak.  
Ementxen zuten botilakuak  
Napañu'tik ekañiak,  
doble kobratu nai liguke-ta  
il bear gaitu egañiak.

## LUJANBIO

Gauza au nola dan deklaratzeko  
batere ez det ajola,  
neri gogotik gustatutzen zait,  
matsarekiko ardoa

eta ez dizutet nik ukatuko  
ardo-zalia nagola  
ni nua emen tratatutzera  
Yesukristoren odola.

## HARĪET

Erán duzu baiña ez dut nai  
orai ere ezin etsi,  
zuen gogoak argiro emen  
bai ditut orain ikusi.  
Arnoa emen edan gogotik  
mintzatu ere xamurki  
pagatu gabe bi itz etxetikan  
partitu zaizkit egesi.

## UZTAPIDE

Onen tabernan sartu naiz ni gaur  
arduaren aitzakian,  
ni zuñutero ona nitzala  
gizon onek ba-zekian.  
Sagardo mia zeukala eta  
ardua saldu naiean,  
bertsolariak ekartzen ditu  
ardo onaren tokian.



## LUJANBIO

Nere laguna konporma zaitez  
Joan Jose'ren esanian  
eta orduan ya'riko zera  
oso bide zuzenian.  
Konsideratzen yartzen ba' zera  
zeo'rek nai dezunian,  
o'rek ura saldu nai liguke  
arduaren izenian.

## HARĪET

Eztakit nik ola den bainan  
untaz bear da pentsatu  
bersala ez nuke nai  
zuengatik zaiñatu.  
Ongi ikasten dutena  
nai dut nik pratikatu,  
nai ba' dezu, omen goitik  
eingo duzut serbitu.

## UZTAPIDE

Naiz tabernari Napa'ua'ko  
asiak daude bu'ruka,  
sagardo onen artu-emanak  
beti dira diru truka.

Kristau artean ezin liteke  
egi au iñork'e uka,  
ai zer bertsuak bota leizkean  
sagardo onak ba'leuzka.

### LUJANBIO

Edari onetikan txarera  
dagan diferentzia  
ez da izaten nolaikoa,  
artzazu pazientzia.  
Kolore emateko aiña ardo  
ta urez bete ontzia,  
modu oretan ez dezu libre  
izango kontzientzia.

### HARÍET

Kontzientzia ez dut kargatzen  
erango dauzut egia,  
beste medio emen bai dago  
olan ondo ikusia,  
ardo onetik gustatutzen zait  
neri beti emaitia  
bertze aldean ohea dezu  
bertara yoan zaitia.



## UZTAPIDE

Onen tabernan aspaldi ontan  
ein det amaika bixita;  
baiña ba-dakit nolatan daukan  
malezi txaraz yañita.  
Naiago nuke bere taberna  
baldin ba'leuka itxita,  
arduen truke ura saltzen du  
kontzientzia utzita.

## LUJANBIO

Denbora asko zan zure tabernan  
ez nitzaizula izandu,  
emen zer pasatutzen ote dan  
yendiak pranko esan du.  
Martxa okeña utzi zazu ta  
egin zaitez zu zuzendu:  
gusto aundian yoango giñake  
ona yañiko ba'zendu.

## HARĪET

Benturaz ala dikeke baiña  
oaintzi oso naiz oartzan  
yendia ez dala len bezela  
ene etxera etortzen.

Beti ari dira auzoko  
taberna geien aldatzen  
ba-dakite ez duela deus'e  
zuegandik irabazten.

### UZTAPIDE

Gizon onetxen pasadizua  
esaten biar det asi,  
gizartean gaizki esana  
sekulan ez det ikusi.  
Tratukerian gezuéz dabil  
Yesukristo'tik igesi  
ola ba'dua a zer gustua  
emango dion Judas'i.

### LUJANBIO

Gauza onak deklaratzeko  
batere ez daukat lotsikan,  
zure etxera yoan ta askotan  
ateratzen naiz utsikan  
ta ez ba'dezu yartzen tabernan  
len baiño gauza oberikan,  
beriz ere ez dezu izango  
Yose'rengandik sosikan.



## HARĪET

Meza ortan nai ba'ziñan  
ene laguna arakatu,  
kondizionak obekiago  
bete bear dituzu,  
arno ona nai zuenian  
eginen proposatu  
ene etxean bai daukazu  
egiñen zuk pagatu.

## UZZTAPIDE

Sagardo biñā yoaten gera  
guziok zar eta gazte,  
taberna ontako pasadizua  
esango dizutet laiste.  
Beti or daude adiskideak  
nola igande ta aste  
urarekin kentzen dizkigu  
sosak, arduaren truke.

## LUJANBIO

Gelditu gabe ari zerade  
gauza zailik ta xamuñik,  
gogo dubenak sinistu beza,  
ez det esango gezuñik.

Orek urakin agintzen digu  
nai negozio aundirik,  
edan liteke andik suelto,  
ez da Moskortu beldurik.

Onekin amaitu zan Bigarren Bertsolari Eguna. Baiña ez osorik : Donosti'ko Eusko Gaztedia'k duan aretoan, bazkari eder bat eman zitzaien eratzailiekin batera anaitasunean baturik. Ba-zan antxe umore ta bertsotako gogoia.

### Epai-maiaren iritzia

Aratsaldean, sari banaketa Eusko Gaztedi'ko aretoan egin zitzaien. Ara nola :

Lenengo saria : Txirita, 150 laurleko.

Bigarren saria : Uztapide, 100 laurleko.

Irugarren saria : Zepai, 75 laurleko.

Laugarren saria : Dargaitz, 50 laurleko.

Bostgarren saria : Iriarte, 25 laurleko.

Murua jaunak emanda, bertsolari zafrenantzak beste 25 laurlekoak Txirita'ri emen zitzaikion eta gazteenekoak Iriarte'ri.

Sari gabeko beste bertsolari guziei ere 25'na laurleko eman zizkioten, eta bertsoa goian, bertsoa beian, bertsoa alboan, bertso ta bertso yardun ziran pozaren-pozez egun osoan.

\* \* \*

Bigarren urtean ospatu degu Bertsolari Eguna. Beste



askoan iraungo al du gure eñien onerako. Bertsolaria eñi mamikoa degu. Eñiak benetan maite ditu ta auek, egiz maite dute eña.

Len gertatu zan alderdi auetan eta beñiro ere gerta liteke orain agertzera guazena: Garai lañiak zebilzkien gure Euskaleña'k; guda zital baten ondoren ostu zizkiguten gure antxin eskubideak. Zeñen deadańak esna zezaken orduan gure eñien lo-zońoa? Bertsolarienak! An azaldu zan Ipańagiñe eñi-esnale.

Gaur ere zeñek erakutsi gure eñiari bere eskubide ta eginbeańak?

Eñiak maite ditu gure adimen argiko bertsolariak. Ar-dangelan, pargińazteko bakańik ez dira yaio. Buru argi ta esaera eder dituzten gizon auek, euskera zaitzeko beańekoak ditugu ta berak ori yakińik ona nola bildu zaizkigun gure deien oiartzunera.

Berak bizi diran artean euskera etzaigu ilko, eta euskera bizi dan artean gure Abeeña ere ez.

Lagun dezaiegun ekińal guzian.

## AURKIBIDEA

Aitzol'dar Y'ren Itzaufea: Bertsolaria, nor degu.... VII

**I'go BERTSOLARI EGUNA** ..... 3

Nola sortu zan (3); Poxpolin-aretoan (4); Lenengo saioa (8); Bigafen saioa (11); Irugafen saioa (16); Laugafen saioa (22); Epai-maiaren iritzia (27); Eusko Gaztedia'n (28); Ondorenak (29).

**Il'gafen BERTSOLARI EGUNA** ..... 33

Tolosa'n (34); Urtebeñi egunez, Azpeiti'n (36); Ilbeltzaren 12'an Elizondo'n (39); Donosti'ko Batzaldia (42); Lenengo saioa (44); Bigafen saioa (52); Irugafen saioa (64); Laugafen saioa (75); Epai-maiaren iritzia (99).

## ARGAZKIYAK

I'ngo Bertsolari-Eguneko epai-maia eta bertsolariak	16
I'ngo Bertsolari-Egunera agertutakoak.....	17
I'ngo Bertsolari-Eguneko guduan txapeldun aukeratuak .....	32
Il'gn Bertsolari-Eguneko epai-maia eta bertsolariak.	33
Il'gn Bertsolari-Eguneko guduan txapeldun aukeratuak .....	48
Tolosa'ko guduan jardun zuten bertsolariak .....	49
Azpeiti'ko guduan jardun zuten bertsolariak .....	64
Elizondo'ko guduan jardun zuten bertsolariak.....	65


















SANEURÍA: 2,50

2